Ardatz egituratzailean aldagaiak identifikatzeko prozesua, lortutako datuen analisi sistematikoa eta lortutako informazioaren egokitasunaren balioespina izango dira nagusi.

- Bigarren fasean, "analisi tekniko-ekonomikoa" izenekoan, aurreko fasean landutako datuak izango ditugu abiapuntu. Datuak biltzeko eta aztertzeko sistema desberdinak erakutsiko ditugu eta horiek kasu errealean izan dezaketen aplikazio praktikoa adieraziko dugu. Horretarako ezinbestekoa izango da adibide praktikoak egitea. Horren ostean, emaitza tekniko-ekonomikoa ebaluatuko dira hainbat motatako irizpideen (diruaren, gizartearen, ingurugiroaren eta abarren inguruko) arabera.

Fase honetako ardatz egituratzailea ustiapenaren funtzionamendua eratu zenean lortu nahi ziren helburuetara egokitzeko analisiaren aplikazioa izango da. Horiek anitzak direnez, ezinbestekoa izango da, ahalik eta objektiboak izango diren datuak lortu ostean, bilatu nahi den ebaluazio-irizpidearen ildoko parametroen arabera aztertzea. Gisa horretan, informazioa ustiapenaren azken helburu bakoitzari emandako garrantziaren arabera diskriminatuko dugu eta metodologiak ebaluatuko ditugu. Horiek ingurugiro-praktika egokien ildokoak izango dira.

JARRAIBIDE METODOLOGIKOAK

Gomendagarria izango da honako ildo hauek aintzakotzat hartzea:

- Oro har, unitate didaktikoak osatuko dituzten irakatsi eta ikasteko eta ebaluaziorako jarduerak zehazterakoan, jarduera horiek prozedurazko ardatz baten inguruan egituratu behar dira. Horrenbestez, kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak barne hartzen dituzten prozedurek eskatu ahala erantsiko zaizkio unitate didaktikoari.

Jarduerak konplexutasun handiagoa izan eta ikasleen autonomia handiagoa eskatu ahala, beharrezko irizten diren kontzeptuzko edukiak (gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak) eta jarrerazkoak zabaldu eta barne hartuko dira.

Kontzeptuzko egitura duen unitate didaktikoren bat ezartzen bada, gomendagarria da ulertzeko zailtasun txikiena dutenetatik handiena dutenetara jotzea eta, ahal den neurrian, ikaslearen esku-hartzea sustatuko duten metodoak erabiltzea. Bestela esan, azalpen-metodoak gehiegi ez erabiltzea gomendatzen da, gisa horretan ikaslearen pasibotasuna ekiditeko.

- Komenigarria da beti egitea unitate didaktikoaren aurkezpena, batez ere motibatzeke helburuekin. Egokia izaten da oinarri gisa kasu praktiko bat edo egoera zehatz bat hartzea. Biek ere errazak izan behar dute eta eztabaida txiki bat egiten ahaleginduko gara. Gisa horretan, ikasleen jakin-mina eta motibazioa pizteaz gain, jarduera hori ikasleek duten gai honi buruzko aurretiko ezagutza zehazteko erabili ahal izango dugu. Horrela, edukiak egokitu ahal izango ditugu.

- Moduluaren hasierako unitate didaktikoan, aurkezpena egiteaz gain eta irakasleek adierazi nahi dituzten alderdien berri emateaz gain (alderdi didaktikoak eta formalak, denbora eta abar), komenigarria izan ohi da ikasleen arteko iritzi- eta informazio-trukea erraztea, kasu eta egoera zehatzak aurkeztearen bidez. Horretan irakasleak ere hartu ahal izango du parte, "gidatzeko", ikasleak modulua osatzen duten jakintzetako batzuen premiaz jabetzen laguntzeko.

Gainera, ikasleek beren iguripenei buruz duten ideia ezagutzeko baliagarri izan daiteke, baita zikloari lotutako lanpostu izan daitezkeenak interpretatzeko eta horien betebeharrak, eskubideak eta abar ezagutzeko ere. Informazio horrek, izan daitezkeen aniztasunari erantzuten lagun diezaguke.

- Irakatsi eta ikasteko prozesuetan funtsezkoa izango da ingurunera eta tituluaren erreferentziazko lanbide-jardueretara egokitzea. Zehatzago esateko, suposizioen datuek eta ezaugarriek, garatu beharreko prozesuek, erabili beharreko dokumentuen kopuru handiagoak, simulatutako egoerek eta abarrek esanguratsu eta "ezagun" izan behar dute ikasleentzat.

EBALUAZIOA

Unitate didaktikoaren hasieran komenigarria da hasierako ebaluazio bat egitea taldearen ezaugarriak, interesak, ezagutza eta premiak ezagutzeko. Horrek gainerako jardueren garapena bertan lortutako emaitzen arabera egokitzea ahalbidetuko du.

Moduluaren garapenean, egin ahala ebaluatuko ditugu banakako eta taldekako jarduerak, ikasleek aurrera nola egiten duten ezagutzeko, gabeziak hautemateko eta horiek zuzentzeko beharrezko neurriak hartzeko.

Egokia litzateke moduluaren amaieran ebaluazioren bat egitea, nekazaritza-jardueretan ingurugiro-irizpideak aplikatzeari dagokionez lortutako maila behatu ahal izateko.



3.3.2. Moduluaren unitate didaktikoak

OCDan moduluaren oinarriko edukiak adierazten dira, eduki-multzotan antolatuta. Hala ere, garrantzitsua da ohartzea banaketa hori egiteak ez duela esan nahi aipatutako edukiak modu eta hurrenkerara horretan antolatuko direnik moduluan barna eta, horrez gain, aipatutako antolamenduak ez ditu baldintzatuko edukiei buruzko azalpenak emateko moduak edo metodologiak.

Modu berean, ez dira nahastu behar “eduki-multzoa” eta “unitate didaktikoa”, izan ere, unitate didaktikoa garatzeko eduki-multzos oso bat edo eduki-multzos baten zati bat erabili ahal izango da.

Horrela, aipatutako ibilbide didaktikoa oinarritzat hartuta, fase bakoitza unitate didaktiko bat izan daiteke.

“Nekazaritza-produkzioa” moduluari dagokionez proposatu diren eta aipatutako eduki-multzosak garatzen dituzten unitate didaktikoak jarraian aipatzen direnak dira:

NEKAZARITZA-PRODUKZIOA		
UNITATE DIDAKTIKOAREN ZK.	IZENA	ORDU-KOPURUA
1.	Lurzoruaren osagaiak	42
2.	Faktore klimatikoak	42
3.	Landareen nutrizioa	24
4.	Laborantzako lanak	24
5.	Nekazaritza ekologikoa	24
6.	Babes-laboreak	24
7.	Labore-txandaketa	18
8.	Bilketa eta biltegiatzea	14
9.	Nekazaritza-jarduerak eta ingurugiroa	16
10.	Barazkiak	20
11.	Luze-zabaleko laboreak	20
12.	Fruta-laboreak	20
13.	Datuen bilketa	20
14.	Analisi tekniko-ekonomikoa	28
GUZTIRA		336

Unitate didaktiko horiek, modulu honi dagozkion edukietan oinarritzeaz gain, aldeztu aurretik garatu diren edo aldi berean garatzen ari diren beste zenbait moduluren edukiak ere kontuan hartu behar dituzte zenbait kasutan. Horrenbestez, beharrezkoa izango da irakasle-taldea osatzen duten kideen arteko koordinazio estua eta arina, izan ere, zenbaitetan alderantzizkoa ere gerta daiteke, hots, honako unitate didaktiko honetan garatzen diren edukiak beharrezkoak izatea beste modulu batzuk garatzeko.

Horri dagokionez, kontuan izan beharko dira ondoren adierazitako moduluen edukiak, neurri batean horietan oinarritzen baita esku artean duguna:

- 3.- Abere-produkzioa.
- 4.- Nekazaritza-enpresen mekanizazioa eta instalazioak.
- 5.- Fitopatologia.
- 6.- Nekazaritza-enpresen kudeaketa eta antolamendua.

Bestalde, modulu honen edukietan barne hartzen diren gaitasunetako batzuk oso garrantzitsuak dira zikloko ondorengo moduluetarako:

- 1.- Nekazaritza-enpresen antolamendua eta kudeaketa.
- 3.- Abere-produkzioa.
- 4.- Nekazaritza-enpresen mekanizazioa eta instalazioak.
- 5.- Fitopatologia.
- 6.- Nekazaritza-enpresen kudeaketa eta antolamendua.

Lantokietako prestakuntzak nekazaritza-enpresaren nekazaritza-produkzioaren egoera tekniko-ekonomikoaren analisiaren, nekazaritza-produkzioaren antolamenduaren, eskulanaren kudeaketaren eta makineriaren erabileraren inguruko alderdiak osatu behar ditu.



4. UNITATE DIDAKTIKOA: NEKAZARITZA-JARDUERAK ETA INGURUGIROA

4.1. Berriazko helburuak

Unitate didaktiko hau amaitzen denean, ikasleak gai izan behar du:

- Ingurugiroaren kontzeptua eta nekazaritza-jarduerak horretan duten eragina ulertzeko eta kokatzeko.
- Produktzioa hobea eta eraginkorragoa izateko ingurugiro-irizpide egokiak aplikatzeko duen garrantziaz ohartzeko.
- Nekazaritza-hondakinak behar bezala kudeatzeko.
- Ingurugiro-aldagaia laneko gainerako prozeduren artean barne hartzeko.
- Ingurugiroarekin zerikusia duten informazio-iturriak erabiltzeko.
- Ingurugiro-legeria zuzen aplikatzeko.
- Baliabideen kudeaketa egokia eta jasangarria ahalbidetuko duten tresnak eta mekanismoak ezagutzeko eta aplikatzeko.

Helburu hauek beraiekin dituzten gaitasunak bereganatzeko hainbat jarduera garatuko ditugu; jarduera horiek garatzeko, oinarrian hurrengo ataleko edukiak hartuko ditugu, edukien multzoetatik lortu ditugunak, hain zuzen. Horrela, aipatu edukietan oinarritutako eta horiekin erlazionaturako jarduerak sekuentziatuko dira, eta modu horretan errazagoa izango da eduki horiek bereganatzea.

4.2. Edukiak

PROZEDURAZKOAK

- Lan-ingurunean ingurugiroaren baldintzazaile diren elementuak identifikatzea.
- Ingurugiroarekin erlazionatutako informazio-iturriak bilatzea, hautatzea eta balioztatzea.
- Baliabide energetikoen (gas, elektrizitate, biomasa, gas-olio eta abarren) eta natur baliabideen (uraren, lurzoruaren eta airearen) erabilera aztertzea.
- Nekazaritzako lanek ingurugiroan dituzten eraginak aztertzea.
- Nekazaritzan erabilitako lehengaiak (haziak, ongarriak, medeatzeak, produktu fitosanitarioak eta abar) aztertzea eta balioztatzea.
- Nekazaritza-jarduerak sortutako hondakinak identifikatzea eta aztertzea.
- “Nekazaritza-praktika egokien” kodea prestatzea eta aplikatzea.

KONTZEPTUZKOAK

- Oinarrizko terminologia: garapen jasangarria, poluzioa, ingurugiro-eragina eta abar.
- Informazioa (orokorra, lege eta arauen ingurukoa eta abar) interpretatzeko eta erabiltzeko oinarrizko arauak.
- Indarrean dagoen legeria.
- ISO 14000, ISO 9000 arauak.
- Hainbat mailatako gaitasunak eta eraginak dituzten erakundeak.

JARRERAZKOAK

- Ingurugiro-arazoaren inguruko sentsibilizazioa.
- Ingurugiro-jarraibide egokiak aplikatzeko konpromisoa.
- Baliabideak erabiltzeko, lanak egiteko, hondakinak kudeatzeko eta produktu toxikoak erabiltzeko erantzukizuna.
- Parte hartzea eta taldean lan egitea atsegin izatea.
- Ingurugiroa babesteko norbanakoaren eta komunitatearen ekintzak beharrezkoak direla balioztatzea.



4.3. Jarduerak

ORDUAK (14)	IRAKATSI ETA IKASTEKO JARDUERAK	OHAR DIDAKTIKO-METODOLOGIKOAK	EBALUAZIO- JARDUERAK	
1. zatia 2 or.	1. Ingurugiro-diagnostikoa Ikasleen aurretiko kontzeptuak azaltzea. Gaur egun dauden ingurugiro-arazo nagusiak.	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide-profiletik bertatik abiatuta motibatzea. Txosten bati buruzko talde-lana egitea eta ondoren bateratze-lana egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Proposatutako gaietakoren bati buruzko txosten idatzia. Txostena aurkeztea. 	
	2 or.	2. Nekazaritza denboran zehar Nekazaritzaren historia. Nekazaritzarekin zerikusia duten ingurugiro-arazo nagusiak.	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritzaren historiaren ezaugarri nagusiak azaltzea. Txosten bati buruzko talde-lana egitea ondoren bateratze-lana egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Txosten bat prestatzea. Txostena aurkeztea.
2. zatia 2 or.	3. Gure lanbide-jardueren ingurugiro-eragina Gure jarduerak sortzen dituen ingurugiro-eraginak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Taldeka egingo da. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basozaintzako jarduerak landuko dira. Lehenik eta behin fluxu-diagrama bat egingo dugu eta ondoren galdera-sorta beteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Fluxu-diagramak eta galdetegia egitea. 	
	2 or.	4. Azukre-erremolatxaren laborantza Gure sektoreko produkzio-prozesu bat garatzea eta zeregin horretan sortutako ingurugiro-arazoak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Azukre-erremolatxaren laborantza-zikloa eta teknologia azaltzea fluxu-diagrama baten bidez. Taldeka, sortutako eraginak aztertzea eta horietarako irtenbideak eskaintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Azukre-erremolatxaren laborantza-zaren fluxu-diagrama egitea. Laborantza horren eraginei buruzko fitxa betetzea.
	2 or.	5. Zer egingo dugu azpiproduktuekin? Gure jarduerak sortzen dituen azpiproduktuak eta horiek izan ditzaketen erabilerak identifikatzea. Gure jarduerak sortutako azpiproduktuak erabiltzea.	<ul style="list-style-type: none"> Azpiproduktuak identifikatzeko fitxa batzuk betetzea eta horietako produktu batzuk erabiltzea. Egindako lanen bateratze-lana egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Fitxak betetzea. Emaitzen bateratze-lana balioztatzea.
3. zatia 2 or.	6. Ingurugiro-politika Ingurugiro-legeria. Nekazaritza-politika.	<ul style="list-style-type: none"> Ingurugiro-legeriari buruzko azalpen teorikoa. Fitxa bat betetzea. "Nekazaritza-politikari eta ingurugiro-legeriari" buruzko txostena irakurtzea eta aztertzea. Galdetegi bat betetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Fitxa eta galdetegia balioztatzea. 	
	2 or.	7. Ingurugiro-kudeaketa Ingurugiroa kudeatzeko sistemak. Auditoretzak. Kalitatea.	<ul style="list-style-type: none"> Ingurugiroa kudeatzeko sistemak, auditoretzei eta kalitateari buruzko azalpen teorikoa. Gai horiei buruzko eztabaida gidatua. 	<ul style="list-style-type: none"> Eztabaida balioztatzea.
4. zatia 2 or.	8. Nekazaritza-praktika egokien kodea prestatzea. Nekazaritza jasagarria. Ingurugiro-praktika egokien analisia.	<ul style="list-style-type: none"> Ingurugiro-praktika egokien fitxa betetzea. Bateratze-lana. Ingurugiro-praktika egokien kodea prestatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Fitxa balioztatzea. Bateratze-lana. Eskolan egiten diren praktiketako aplikazio-maila behatzea. 	



5. JARDUEREN DESKRIBAPENA

JARDUEREN ANTOLAMENDUA

ZK.	IZENA	DENBORA
1	Ingurugiro–diagnostikoa.	2
2	Nekazaritza denboran zehar.	2
3	Gure lanbide–jardueren ingurugiro–eragina.	2
4	Azukre–erremolatxaren laborantza.	2
5	Zer egingo dugu azpiproduktuekin?	2
6	Ingurugiro–politika.	2
7	Ingurugiro–kudeaketa.	2
8	Nekazaritza–praktika egokien kodea prestatzea.	2

Guztira: 16 ordu

Jarduera hauetako bakoitza ondoko elementuez osatuta dago:

- Irakasleentzako materiala: gardenkiak, betetako galdera–sortak...
- Ikasleentzako materiala: txostenak, galdera–sortak, fitxak.
- Eranskinak (egokitzen hartzen denean).

Jardueri laguntza teorikoa emateko honako eduki–mota hauek aurkezten dira:

- Txostenak, jarduera garatzeko beharrezkoak diren edukiak, ikasleek jarduera garatu ahal izateko aztertu eta asimilatu beharreko testuak dira. Irakasleek txosten horien zuzeneko edo zeharkako azterketa egin ahal izango dute.
- Eranskinak, material osagarria, non informazio gehiago eskaintzeaz gain txostenetako materialen ulermena errazten eta zabaltzen den.

2. atala “ikasleentzako txosten eta eranskin bezala erabil daiteke”

Gardenkiak orrialde osoko formatuan aurkezten dira irakasleek gardenkietan fotokopiatu ahal izateko.

Unitate didaktikoa garatzen duten jardueretan gaur egun ekoizpen–sektore desberdinei lotutako ingurugiro–problematikaren barruan kontuan hartu beharreko erreferenteak diren gai zehatz batzuk barne hartzeko ahaleginak egin dira:

- Garapen jasagarria.
- ISO 14000 arauak.
- IKS (Ingurugiro Kudeaketarako Sistema).
- Ingurugiro Praktika Egokien (IPE) Kodea.
- Ekoizpen–sektorearen legeria ingurugiroari dagokionez.



1. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Ingurugiro–diagnostikoa	Gela, Etxea	2 ordu

HELBURU OPERATIBOAK

- Gaur egun dauden ingurugiro–arazo nagusiak, horien kausak eta ondorioak aztertzea.
- Ingurugiro–arazoen artean dagoen menpekotasun–erlazioa egiaztatzea.
- Jasangarritasunaren kontzeptua barne hartzea.

BALIABIDEAK

- ◆ 1. eranskina: Biodibertsitatearen krisia.
- ◆ 2. eranskina: Ingeniaritza genetikoa.
- ◆ 3. eranskina: Nekazaritzako poluzio lausoa.
- ◆ 4. eranskina: Lurzoruaren higadura.

METODOLOGIA

1. Lehenengo saio batean ideia–jasa egingo dugu. Bertan ikasleek ezagutzen dituzten ingurugiro–arazoen berri emango dute. Taldeko pertsona batek arbelean idatziko ditu aipatzen diren arazo nagusiak. Horrenbestez, ikasleek ingurumen–arazoei dagokienean dituzten ideiak izango ditugu abiapuntu eta horiek azaleratzen ahaleginginduko gara.

Saioa amaitzeko, gaiak aukeratuko ditugu eta 3 edo 4 pertsonako taldeak antolatuko dira, taldeek gai horietako bana lan dezaten.

Jorra daitezkeen gaietako batzuk:

- Ingeniaritza genetikoa.
- Nekazaritzako poluzioa.
- Espezieak desagertzea, biodibertsitatearen galera.
- Lurzoruaren higadura.
- Superpopulazioa.
- Klima aldaketa.
- Ozono–geruzako zuloa.
- Euri azidoa.
- Elikagai transgenikoak.

(Lehenengo lau arazoei dagokienean, informaziorako eranskina eskainiko dugu, taldeei eman ahal izateko)

2. Gelatik kanpo ikasleek hautatutako gaiari buruzko informazioa bilatu beharko dute eta honako eskema hau izango duen txosten laburra egin beharko dute:

- Gaia.
 - Arazoaren kausak.
 - Ingurugiroan dituen ondorioak edo eraginak.
 - Historian zehar izan duen bilakaera.
 - Etorkizuneko aukerak.
 - Arazoa gelditzeko edo gainditzeko har litezkeen neurriak.
- 3.** Gelako bigarren saioan taldeek hamarna minutu izango dituzte beren txostenak aurkezteko. Zalantzarik gabe azalpenetan behin eta berriz agertuko diren alderdiak azpimarratuko ditugu, ingurugiro-arazoaren globalitatearen kontzeptua indartzeko. Horri dagokionez, bereziki azpimarratuko dugu jasangarritasunaren ideia.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Txostena egitea.
- Txostena aurkeztea.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ideiak ordenatuta eta zuzen aurkeztea.
- Garatutako edukiak.
- Lan-taldeko parte-hartzea.
- Ingurugiro-arazoekiko interesa.
- Ingurugiroaren konplexutasunaren eta erlazioen arazoaren adierazpena.

a

1. jarduera



IZENBURUA <hr/> Ingurugiro–diagnostikoa	 KOKAPENA Gela, Etxea	KALKULATU DEN DENBORA 2 ordu 
---	--	--

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Gaur egun dauden ingurugiro–arazo nagusiak, horien kausak eta ondorioak aztertzea.
- ☞ Ingurugiro–arazoen artean dagoen menpekotasun–erlazioa egiaztatzea.
- ☞ Jasangarritasunaren kontzeptua barne hartzea.

GARAPENA

1. Lehenengo saio batean ideia jasa egingo dugu. Bertan zuek ezagutzen dituzuen ingurugiro–arazoen berri emango duzue. Taldeko pertsona batek arbelean idatziko ditu aipatzen diren arazo nagusiak. Horrenbestez, ingurumen–arazoei dagokienean dituzuen ideiak izango dira abiapuntu eta horiek azaleratzen ahaleginduko gara.

Saioa amaitzeko, gaiak aukeratuko ditugu eta 3 edo 4 pertsonako taldeak antolatuko dira, taldeek gai horietako bana lan dezaten.

Jorra daitezkeen geletako batzuk:

- Ingeniaritza genetikoak.
 - Nekazaritzako poluzioa.
 - Espezieak desagertzea, biodibertsitatearen galera.
 - Lurzoruaren higadura.
 - Superpopulazioa.
 - Klima aldaketa.
 - Ozono–geruzako zuloa.
 - Euri azidoa.
 - Elikagai transgenikoak.
2. Gelatik kanpo hautatutako gaiari buruzko informazioa bilatu beharko duzue eta honako eske-ma hau izango duen txosten laburra egin beharko duzue:
 - Gaia.
 - Arazoaren kausak.
 - Ingurugiroan dituen ondorioak edo eraginak.
 - Historian zehar izan duen bilakaera.
 - Etorkizuneko aukerak.
 - Arazoa gelditzeko edo gainditzeko har litezkeen neurriak.
 3. Gelako bigarren saioan talde bakoitzak hamar minutu izango du bere txostena aurkezteko.

TXOSTENA

GAIA

Arazoaren kausak.

.....

.....

.....

.....

.....

Ingurugiroan dituen eraginak.

.....

.....

.....

.....

.....

Bilakaera historikoa.

.....

.....

.....

.....

.....

Etorkizuneko aukerak.

.....

.....

.....

.....

.....

Har litezkeen neurri zuzentzaileak.

.....

.....

.....

.....

.....



1. jardueraren 1. eranskina



BIODIBERTSITATEAREN KRISIA

Dibertsitate genetikoa, espezieena eta ekosistemena galtzea da gizateriaren etorkizunerako arrisku nagusietako bat

José Santamarta

DIBERTSITATE BIOLOGIKOARI BURUZKO HITZARMENAREN IDAZKARITZA
World Trade Centre, 393 St. Jacques Street. Office 630,
Montreal, Quebec. Kanada H2Y1N
Tel: +1 (514) 288 22 20; Fax: +1 (514) 288 65 88.
Internet: <http://www.biodiv.org>
E-mail: biodiv@mtl.net

Urtero milaka espezie desagertzen dira, eta horiekin nekazaritzako kulturen, industria-produktuen edo gaixotasunak sendatzeko sendagaien aukera berriak. Dibertsitatea galtzearen ondorioz, gora egi-ten dute uniformetasunak, elikatzeke landare-barietate gutxi batzuekiko menpekotasunak eta, batez ere, izurri eta gaixotasunen inguruko ahultasunak. Biodibertsitatea galtzeko arrazoiak dira habitaten narriadura eta zatikatzea, espezieak sartzea, landare, animalia eta arrainen gehiegizko ustiapena, poluzioa, klima-aldaketa, nekazaritza (erabilitako barietateen murrizketa, plagizidak) eta hazkunde bizko-rrereko labore bakarreko baso-berritzeak.

Garapen ekonomikoaren, hazkunde demografikoaren, errentaren banaketa desberdinaren eta jasangarria ez den baliabideen kontsumoaren ondorio kaltegarriari, bioteknologia berriek eta ingeniari-za genetikoaren garapenak, merkaturatutako nekazaritzako, basoko eta arrantzako produktuen espektro murriztak eta baliabideei dagokien balioa ematen ez dieten ekonomia-politikek eragindakoak gehitu behar dizkiegu .../...

Inbentariatutako espezieak 1.750.000 dira, baina autore batzuen ustez badira 111 milioi espezie baino gehiago, nahiz eta batez besteko zenbatekoa 13.620.000 dela balioetsi. Jada deskribatutako espezieen artean honakoak ditugu: 270.000 landare, 4.300 ugaztun, 9.700 hegazti, 6.300 narrasti, 4.200 anfibio, 19.000 arrain, 72.000 onddo (espezieen kopuruak 1,5 milioi baino gehiagokoa izan behar duela uste da), 1.085.000 artropodo (950.000 intsektu deskribatu dira, nahiz eta espezieen kopurua 8 milioi baino gehiagokoa izan daitekeen), 5.000 birus eta beste 4.000 bakterio (ustez existitzen diren 400.000 birus baino gehiagoren eta milioi bat bakterioen zati txiki bat).

Baso tropikaletan, urgaineratutako lurren %7 baino osatzen ez dutenetan, bizi dira espezieen guztizkoaren %50 eta %90 artean. Espezieak galtzeko batez bestekoa honakoa zen: ugaztun-espezie bat 400 urtetik behin eta hegazti-espezie bat 200 urtetik behin. Alabaina, azken 400 urteetan dokumentatutako galeren arabera, 58 ugaztun-espezie eta 115 hegazti-espezie desagertu dira.

Gainera, zenbateko horiek ezagutzen diren galerei bakarrik dagozkie. Galtzeko arriskuan dauden populazioek hainbat belaunaldi iraun ditzakete, baina desagertzera kondenatuta daude beren guztizko kopurua ez denean lehorte, gaixotasun, harraparitza edo beste nolabaiteko fenomenoren baten gogortasuna jasateko adinakoa. Espezie baten banakoen kopuruak gutxienez hainbat milatak izan behar du epe luzera bizirauteko. Ugaztun-espezieen ehuneko 12 eta hegazti-espezieen %11 inguru galtzeko arriskuan dauden espezie gisa sailkatu zituzten 1990ean.

Gure elikaduraren ehuneko 90 soilik 15 landare-espezie eta 5 animalia-espezieetatik eratorritakoa da. Espezie berriek bertakoak ordeztu dituzte eta, horrela, nekazaritza uniforme bilakatu da eta dibertsitate genetikoa suntsitu egin da. Indonesian, adibidez, 1.500 arroz-barietate desagertu dira 15 urtetan, Munduko Baliabideen Institutuaren (WRIren) arabera.

Uniformetasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa urrakortasuna. Irlandan 1846an izan zen patata-uztaren galera, 1970ean Estatu Batuetan izandako arto-uztarena edo 1972an Errusian

izandako gari-uztaren galera higadura genetikoaren arriskuen adibide dira eta landareen bertako barietateak zaintzeko beharra erakusten dute. Barietate horiei eustea hobeak izango diren eta izurriak hobeto jasango dituzten barietate berriak sortzeko bide ere izango da.

Gaur egun Kanadan lantzen den gariak 14 herrialdeetatik datozen geneak ditu eta EEBBko pepinoen geneak Birmania, India eta Koreatik ekarritakoak dira. Gene horiek, gainera, inolako ordain ekonomikorik gabe lortutakoak dira, EEBBek esportatzen dituzten hazi hobetuak ez bezala. Estatu Batuetako, Europako Batasuneko eta Japoniako multinazionalak doan lortu nahi dituzte, batez ere Hirugarren Munduko herrialdeetan, baliabide genetikoak, ondoren horiei saltzeko lukurreriazko prezioetan lortutako haziak, animaliak edo sendagaiak, betiere "jabetza intelektualean" oinarrituta. Ingeniaritza genetikoak milaka landare-barietate galtzea izango du ondorio, izan ere, produktibitate handiko gutxi batzuk bakarrik landatuko dira. Horrezaz gain, gainera, beste hamaika arrisku izango dira eta horiek areagotu egingo dute aurreko hamarkadetako iraultza berdearen eragina.

BIODIBERTSITATEA BABESTEA

Biodibertsitatea zaintzeko bi planteamendu daude: espezieak eta banakako populazioak babestea edo horiek bizileku dituzten habitatak babestea. Funtsezkoena ekosistema osoak zaintzea da, gisa horretan horiek funtzionaltasuna ziurtatuko baitugu. Espezie eta populazioetara bideratutako ahaleginek, garrantzitsuak diren arren, denbora eta ahalegin handia eskatzen dute. Horretarako neurrien artean ditugu banakako espezieen lege-babesa, kudeaketa-planak eta ex situ kontserbazioa, hots, animalia edo landareen populazioak zoologikoetan edo hazi-bankuetan babestea. Ex situ kontserbazioa baliagarri da dibertsitate genetikoaren eta naturako espezieen galeraren aurkako aseguru gisa nahiz basoko populazioak berriz sartzeko edo indartzeko hazitegi gisa. Gainera, hazi-bankuak dibertsitate genetikoko iturri dira nekazaritzako ikerketarako.

BIODIBERTSITATEA GALTZEKO KAUSAK

Espanian handia da faunaren eta floraren dibertsitatea, baina horien kontserbazio-egoera tamalgarrria da. Gainera, ugariak dira arriskuan edo galtzeko zorian dauden espezieak. Horixe adierazten du, behintzat, ICONA zaharraren Hispanat proiektuak: landare baskularren ehuneko 12 eta ornodunen espezieen ehuneko 26 UICNren kategoria hauetan daude: galdutakoa, galtzeko arriskuan dagoena, kaltebera edo arraroa. Florako 209 espezie eta ornodunen 43 espezie galtzeko arriskuan dira.

Dibertsitate biologikoaren kontserbazioak baldintzatu beharko lituzke arloko politika guztiak.

Espanian hainbat behi-arraza desagertu dira eta ugariak dira galtzeko arriskuan dauden landutako landareen eta abereen espezieak. Europako gainerako herrialdeetan bezala, naturak eta jatorrizko ekosistemek garapenaren ondorioak jasan dituzte: oihan-galtzea, biodibertsitatearen galera, ziklo hidrogeloen alterazioa, desertifikazioa eta higadura, poluitutako lurzorua, poluzio atmosferikoa, hirigintza-espekulazioak gehiegi ustiatutako itsasertza, gehiegizko arrantza, poluitutako ubideak, urteko 270 milioi tonako hondakinak (horietako 3 milioi hondakin toxikoak eta arriskutsuak izan ohi dira), substantzia toxikoen eta bioakumulatiboen, organokloratuen edo substantzia erradioaktiboen, difusioa, nitratoek poluitutako akuiferoak eta eutrofizazio-prozesuak.

1950az geroztik leku hezeetako espezieen ehuneko 50 desagertu da. Ehunka kilometro errepide eraiki dira eta horietan barrena 18 milioi ibilgailu ibili dira. 1970 eta 1990 artean bikoiztu egin da bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko eskaria. Ibilgailuen parkea 22 milioi baino gehiagokoa izango da 2000. urtean eta inork ez daki noiz joko duen horrek goia. 53 km³ ur biltegitzeko edukiera duten 1.015 urtegik 3.000 kilometro karratu estali dituzte eta ureztatzeko sailen 3,4 milioi hektareak kontsumitzen dute, eraginkortasunik gabe, kontsumitzeko uraren %80 (24.000 Hm³, guztizko 30.494tik). Bestalde, 500.000 putzu baino gehiago daude.

Urtero 1,8 milioi tona ongarri kimiko kontsumitzen dira eta 60.000 milioi pezeta baino gehiago gasatzen dira produktu fitosanitarioetan. Uztondoak erretzeko ohitura zabaldua dago, nahiz eta baso-sute ugari eragiten dituen, lurzoruen kontserbazioari kalte egiten dion, higadura areagotzen duen eta euri-ura iragaztea zailtzen duen.

1961-1994 aldian zehar estalitako 2.320.000 hektarea erre dira Espainian. Lurraldearen %18k urteko eta lurzoru-hektareako 50 tona baino gehiagoko higadura jasaten du eta herrialdeko azaleraren



1. jardueraren 1. eranskina



%3 bakarrik estaltzen dute baso trinkoek. 1940 eta 1994 artean 2,9 milioi hektarea birpopulatu dira pinuekin eta 450.000 hektarea eukaliptoekin. Oso gutxi, berriz, zuhaitz hostotsu autoktonoekin.

BIODIBERTSITATERAKO ESTRATEGIA NAZIONALA

Espainiak, lau eskualde biografiko (mediterranearra, atlantikoa, alpinoa eta makaronesikoa) dituenak eta Europako Batasuneko lurraldearen ehuneko 22 osatzen duenak, interes komunitarioko gisa identifikatutako espezieen %40 eta habitaten %54 ditu (226 habitat-motetako 121, EEEko 43/92 Habitat Arzteztarauaren arabera).

Espainiak 80.000 taxon inguru ditu, 635 ornodun, 50.000 ornogabe baino gehiago, 8.000 landare basular, 15.000 onddo, 2.000 liken eta 1.500 briofita. 1.500 landare-endemismo inguru daude, hots, gure lurraldean bakarrik bizi diren espezieak. Europa guztian 142.000 taxon bakarrik ezagutzen dira. Horrenbestez esan dezakegu Europako espezieen ehuneko 50 baino gehiagok badutela ordezkaritza Espainian. Zenbateko hori, gainera, %74 da hegaztien kasuan (368 espezie) eta 79 ugaztunenean (118 espezie).

Halaber, gure herrialdean 68 arrain-espezie daude, EB zaharreko hamabikoan zeuden 150 espezieetatik. Baita 56 narrasti-espezie eta 25 anfibio-espezie ere.

Espainian ezinbestekoa da administrazioak "Biodibertsitatearen kontserbaziorako eta erabilera jasangarrirako estrategia nazionala" prestatzea eta aplikatzea, sinatutako Hitzarmenak dioten jarraiki, eta GKEek parte-hartze eta kontrol zorrotzagoa izan beharko lituzkete .../...

Habitatak kontserbatzea beharrezkoa da dibertsitate biologikoa zaintzeko. Parke eta naturgune babestuen sarea lurraldearen ehuneko 15era zabaldu behar da. Horretarako, gure dibertsitate biologikoaren errepresentagarri izango diren areen sistema bilatu behar dugu, baina balio paisajistikoak ahaztu gabe. Hala ere, funtsezkoena lurralde osoko dibertsitate biologikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria da, eta ez naturgune babestuetakoa bakarrik. Espainiako lurraldearen %5 bakarrik dagokie naturgune babestuei (579 naturgune eta 2.663.267 hektareako azalera). Eremu horretan ez da barne hartzen "Proyectos Biotopos/Corine" izenekoan interes handiko gisa identifikatutako espazioen herena. Babestutako azaleraren erdia Andaluzian dago. Beste muturrean, berriz, ia eremurik babestu ez duten autonomia-erkidegoak ditugu, Errioxa, Galizia edo Gaztela eta Leon esate baterako.

Halaber, beharrezkoa da abereen bideak eta ibaiak berreskuratzea, penintsulako benetako korridore ekologiko bertikalak (abereen bideak) eta horizontalak (ibaiak) baitira.

Biodibertsitatearen kontserbazioak arloko politika guztiak (ekonomia, nekazaritza, basozaintza, arrantzak, ura, garraioa eta energia, turismoa, hirigintza, merkataritza, industria eta abar barne hartzen dituztenak) baldintzatu behar ditu. Lehentasun osoa eman behar zaio in situ kontserbazioari, banku genetikoen (ex situ kontserbazioaren) ginetik, nahiz eta horiek ere beharrezkoak izan. Garrantzi berezia du nekazaritzako eta abeltzaintzako dibertsitate genetikoen kontserbazioak, in situ nahiz ex situ (germoplasma-bankuak) egindakoak.



1. jardueraren 2. eranskina



INGENIARITZA GENETIKOA

Ingeniaritza genetikoaren bidez laborategian diseinatutako organismo bizidunak askatzea arriskutsua da planetako egonkortasun ekologikorako

Isabel Bermejo

GAIA ALDIZKARIA.

96ko udazkena.

Ingeniaritza genetikoko teknologien garapena 70eko hamarkadaren hasierakoa dugu, izaki bizidunen material genetikoa hereditarioa osatzen duten azido nukleikoen (DNA) kateen berariazko segmentuak ebakiz "guraize" organiko gisa jarduten duen entzima-mota baten aurkikuntzaren ondoriozkoa. Azido nukleikoak laborategian isolatu ondoren, isolatu ostean geneak manipulatzeko, berriz ere zelula bizietan sartzeko edo hainbat organismotako material genetikoa berriz konbinatzeko metodoak garatu ziren hurrengo urteetan.

Bi hamarkadatan ingeniaritza genetikoa izan duen aurrerakada harrigarria dela eta, gizateriak oso tresna boteretsua du esku artean, guztiz exotikoak diren ezaugarriak eta funtzioak dituzten eta, kasu askotan, naturan bizirauteko gai diren organismoak laborategian sortzea ahalbidetzen dion tresna, hain zuzen ere. EEBBetan zimeltzeko prozesua berandutu diete bertan landatzen diren tomate batzuei. Horretarako arrain-gene bat erantsi diote landarearen genomari. Genoma banako baten material genetikoa guztia da. Material horren zati txiki bat geneak dira eta gainerako zatiaren funtzioa ia ez da ezagutu ere egiten.

Jada landatzen dituzte bakterio edo intsektuetako material genetikoa transferituta duten artoaren, algodoiaren, patataren eta bestelako hainbat landareren barietateak. Bide horretatik, toxina intsektiziduen produkzioa bultzatu dute. Bestalde, birus-zatiak dituzten hainbat barietate merkaturatzekotan dira. Horiei gaixotasun eta izurri batzuekiko erresistentzia handiagoa izateko erantsi zaizkie birus-zatiak. Intsektu "suizidak" eta harrapari "naturalak", izurriak kontrolatzeko indartsuagoak izango direnak, ari dira sortzen. Etxe-abereak manipulatu dituzte, baita bakterio eta birus ugari ere, industriak aprobetxa ditzakeen substantziak produzitzeko "fabrika" bizi bihurtzeko edo funtzio guztiz berriak, hondakin poluitzaileen deuseztapena adibidez, izateko.

.../... Eta ustez erabilgarriak diren organismo transgeniko ugari garatzeko ahaleginak egiten dira.

Egia esan antzinatek baliatu izan ditu gizateriak bere onurarako naturako dibertsitatea eta aberastasun genetikoa. Horretarako arrazak eta barietateak hautatu eta hobetu izan ditu. Alabaina, ingeniaritza genetikoa teknologia tradizionalarekin erkatuz gero genetika hobetzeko duen potentzial transformatzailea askoz handiagoa da. Ingeniaritza genetikoa berekin dakartzan arrisku handiak bere prozesu biologikoetako interferentzia-gaitasun handian dautza, hain zuzen ere. Gainera, prozesu biologiko horien funtzionamendua ulertzetik oraindik ere oso urrun gaude, eta horiek kontrolatzetik are urrunago.

Espezieen garapen ebolutiboa oraindik ere harri eta zur uzten gaituen konplexutasuna duen prozesua da. Horren arauak eta erritmoak ez ditugu ia ezagutu ere egiten. Jakin badakigu dinamika ebolutiboak berak muga biologikoak ezarri dituela elkarrengandik hurbil dauden edo ahaide diren espezieen arteko gurutzatzea bakarrik ahalbidetzeko. Haatik, ez dugu ia ezagutzen horien esanahi ebolutiboa eta egonkortasun ekologikoari eusteko eragina. Bestalde, badakigu badirela truke genetikoa horizontalerako (antzekoak ez diren espezieen arteko) mekanismoak, nahiz eta ez ditugun ezagutzen horien jarraibideak eta funtzioak. Dena dela, gaur egun ingeniaritza genetikoa aukera eskaintzen digu erritmo eta muga biologiko guztiak itzurtzeko eta, gisa horretan, espezieen bilakaeran drastikoki esku hartzeko. Amuarrainaren geneak zuzenean tomateari transferitzea, adibidez, absurdu ebolutibo bat da

ziurrenik. "Absurdu" horiek eskala handian askatzeak neurri handi batean aurreikusi ezin diren ondorioak izango ditu eta horiek oso txarrak izan daitezke planetaren egonkortasun ekologikoari dagokionez.

ARRISKUAK

.../... Orain gutxi egiaztatu ahal izan da landareen karaktere transgenikoak inguruneko antzeko espezieetara hedatzea posible izateaz gain, hori hasiera batean uste genuena baino erritmo handiagoan gertatzen dela. Horrek areagotu egiten ditu "poluzio genetiko", dibertsitatearen galera eta natur ingurunean espezie transgenikoak sartzeak eragin ditzakeen nahasteak izateko arriskuak.

Ezaugarri transgenikoak organismo bizidunetara transferitzeak lehiarako abantailak ekar diezazkieke (gazitasunarekiko, lehorteekiko eta hotzarekiko erresistentzia handiagoa adibidez). Horrek habitat berrietan sartzea eta beste espezie batzuk desplazatzea eta, bide horretatik, dibertsitate ekologikoa murriztea eta ekosistemaren dinamika eta oreka nahastea erraz ditzake. Kontuan izanik ezaugarri berriak ahaide diren espezieetara transferi daitezkeela edo aurreikusi ezin den moduko bilakaera izan dezaketela, eta ekosistema batean sartutako espezieak kontrolatu ezin den moduan ugaltzea eta barreia daitezkeela, organismo transgenikoek ingurunera ihes egiteak edo horietan nahita askatzeak elkarren hurreneko oso ondorio larriak izan ditzake, kasu askotan aurreikusi ere ezin ditugunak.

Gogoan hartu, adibidez, habitat jakin batzuetan espezie exotiko batzuk sartzeak izan dituen ondorio suntsitzaileak (untxiak Australian esate baterako) edo biztanleria jakin batzuetan ezezagunak ziren gaixotasunek eragindakoak (Amerikako indigenen artean hildako asko eragin zituen gripeak). Egindako kalkuluen arabera, munduan egin diren espezie exotikoen sartzeen %10ek gutxi gorabehera oso eragin negatibo larria izan du ingurunean .../...

Nekazaritzako labore transgenikoen kasuan izan daitezkeen eragin negatiboa askoz larriagoa izango litzateke Hirugarren Munduko herrialdeetan, hor baitaude lurreko dibertsitate biologikoko zentro nagusiak. Labore berriek beren basoko ahaideak "genetikoki kutsa" ditzakete eta, gisa horretan, murriztu egin daiteke dibertsitate biologikoa eta nahasi egin daiteke bereziki ahulak diren ekosistemen oreka. Halaber, bertako biztanleria elikatzeke eta gizateria osoaren etorkizunerako ezinbestekoak diren tokian tokiko barietateak desplazatu egin daitezke .../...

PLAGIZIDAK

Propietate intsektizidak edo fungizidak dituzten landare transgenikoen laborantzak eragozten zailak diren erresistentzia berriak agertzea izan dezake ondorio edo onuragarriak diren intsektuak edo prozesu biologiko ugari eusteko ezinbestekoak diren onddoak desagertzea eragin dezake. Arriskuak ere handiagoak dira "pestizida biologiko" deiturikoen kausan, izan ere, egiaz substantzia toxiko intsektizida edo fungizida indartsuak sortzeko "programatutako" birus eta bakterioak edo beste intsektu batzuen populazioak kontrolatzeko bereziki diseinatutako intsektuak dira. Horiek hedatzeak eta mutazioak izateko eta beste organismo batzuekin berriz konbinatzeko aukerak benetako hondamendi ekologikoa izan dezake ondorio. Biozida berrien arrisku handia horien portaera eta bilakaera kontrolatzeko ezintasunean datza. Halaber, ez dago horien hedatzea eteterik, eragin kaltegarriak hautesmaten diren kasuan .../...

AURREIKUSI EZIN DIREN ORGANISMO TRANSGENIKOAK

Ingurunean izaki bizidun transgenikoak sartzeak dakartzan arriskuak areagotzen dituen beste arazo bat ingurugiro-baldintzek beren portaeran zein eragin izan dezaketean ez jakitea da. Oraindik ere oso oinarritzakoa eta mugatua da izaki bizidunen funtzionamenduari eta gene/organismo erreakzioei buruz dugun ezagutza. Ingeniaritza genetiko erredukzionistak nahi lukeenaren aurka, geneek ez dute funtzio bakar eta aldagaitz bat menperatzen eta ez dute beren ingurunetik isolatuta jokatzen. Aitzitik, gene baten funtzioa geneen multzoarekiko eta izaki bizidun bakoitzaren prozesu organikoaren multzoarekiko elkarreaginean zehazten da.

Gene batek beste baten presentzia ezkuta dezake edo beste gene batzuekiko konbinazioan joka dezake funtzio jakin bat gauzatzeko. Gene bat organismo batetik bestera transferitzearen eraginak,



1. jardueraren 2. eranskina



horrenbestez, aurreikusi ezinekoak dira hein handi batean. Gainera, horien arteko ahaidetasuna zenbat eta aurreikusi ezinekoagoa izan, orduan eta aurreikusi ezinezkoagoak izango dira eraginak ere. Egiaz, ingeniari-tza genetikoak benetako zentzugabekeriak sortu ditu laborategian izaki bizidun transgenikoak "eraikitzerakoan": zerri artritikoak eta erdi-itsuak, adibidez, hazteko hormonak sortzeko asmoz giza geneak transferitzearen ondorioz; eta ardi diabetikoak, antzeko beste manipulazio baten ondorioz.

Dena dela, ez du hurbileko inguruneak (organismoaren multzoak) bakarrik eragiten zuzenean gene baten funtzioan. Aitzitik, izaki bizidunek kanpoko faktoreei erantzuten diete: beroari, nutrienteen ezari, lehorteari eta abarri, eta faktore horiek ingeniari-tza genetikoaren bidez transferitutako gene baten funtzioa ezeztatu edo alda dezakete. Adibidez, egiaztatu izan da beroak edo lurzorua konposizioaren aldaketak manipulaturako landareetara transferitutako geneen espresioa inhibi dezaketela, edo, alderantziz, sustatu egin dezaketela. Bestalde, herbizidekiko erresistentziarekin diseinatu ziren eta haztegi-tan arazorik gabe herbizida toxikoen euria jasaten zuten landareek beste modu batera jokatzen zuten kanpoaldean landatzerakoan, lortutako erresistentzia galtzen baitzuten.

ERREDUKZIONISMOA

Ingeniari-tza genetikoaren fokatze erredukzionistak berekin ekar ditzake gizateriaren arazoan analisia sinplifikatzeko arriskua eta arazoak atzeratu —edo larritu— besterik egingo ez luketen "adabakiz adabakiko" irtenbideak. Nekazaritza intentsiboak eragindako lurzoruen gazitzeari erantzuteko ingeniari-tza genetikoak gazitzearekiko erresistentzia duten landareak diseinatu ditu. Gisa horretan, garrantzia kendu zaio lur emankorrek eta nekazaritzaren oinarri den dibertsitate genetikoaren suntsitzea eta elikagaien banaketaren desberdintasun handiagoa eragin duten produkzio-sistemak aldatzeko presazko premiari.

Poluzioak gure defentsak hondatzen ditu eta giza osasuna narriatzen du. Ingeniari-tza genetikoak, berriz, gero eta sofistikatuagoak izango diren medikamentu berriak jarriko ditu gure esku eta, agian, gure sistema immunologikoa "berreraikitzen" ahaleginduko da, inguruan duen zama toxikoari eusteko. Eta, jakina, ingurune fisiko eta afektibo osasungarria berreskuratzeko.

Ingeniari-tza generikoaren bidetik, bizitza bera hartu da barne industriako prozesuetan. Ingeniari-tza genetikoak ia finantziario publikoarekin bakarrik garatu zen hasieran. Alabaina, horren inguruan sortutako iguripen handiek industriaren interesa erakarri zuten. Azkeneko 20 urteetan ingeniari-tza genetikoak milioi askotako inbertsioak egin ditu bere (20.000 milioi dolar inguru). Gisa horretan, ikerketa multinazional agrokimiko eta farmazeutiko handien inguruan kontzentratu da pixkanaka-pixkanaka. Egun sektorea horiek kontrolatzen dutela esan genezake. Herrialde aberatsetako fondo publikoen zati handi bat ingeniari-tza genetikoko proiektuen baterako finantziarioa bideratzen jarraitu dute. Eta hori gizarte-kapitalaren pribatizazioaren adibide garbia dugu.

Gaur egun inbertsioak errentagarri bihurtzeko premia oinarritzko ikerketaren garapena baldintzatzen eta mugatzen ari da eta ikerketa aplikatuaren orientabidea modu arriskutsuan ari da okertzen. Zoritxarrez, nekez espero dezakegu ekonomiaren, merkatu globalerako errentagarritasunak sustatutako ikerketaren, birbideratze ekologiko eta sozialerako beharrezkoa litzatekeen tokian tokiko arazoe-kiko arreta. Nekazaritzan, herbizidak (enpresak berak ekoiztutakoak, jakina) jasango dituzten laboreen barietateak garatzea da ikerketa-eremurik garrantzitsua.

BIZIAREN GAINEKO PATENTEAK

Ingeniari-tza genetikoan oinarritutako negozioetan nagusi diren konpainia multinazionalak irabaziak bilatzeak aztertutako material genetikoen (giza material genetikoaren barne) gaineko patenteak lortzearen aldeko lehia ekarri du berekin.

Ingeniari-tza genetikoak da maila desberdineko trukearen adibiderik garbiena: multinazionalak ez dute ezer ordaintzen Hegoaldeko baliabide genetikoen truke eta zenbateko ikaragarriak kobratzen dituzte baliabide genetiko horietatik abiatuta lortutako produktuen —adibidez, hazien edo medikamentuen— truke.

Material genetikoaren gaineko patenteak emateak nekazaritza Iparraldeko herrialdeetako nekazaritza-industriako enpresen onurarako eta Hegoaldeko herrialdeetako nekazaritza tradizionalaren kaltetan merkaturatzeko eta oligopolizatzeko prozesuak —gaur egun jada aski kezkarriak badirenak— areagotzeko arriskua dakar. Patenteak direla eta nekazariak urtero hazi berriak erosi beharko lituzkete eta gisa horretan oztopatu egingo litzateke datu zientifikoaren trukea eta are gehiago handituko litzateke enpresa handien kontrola.

Patenteen sistemari lotutako sekretismoak atzeratu egingo du ikerketa biokimikoa. Bestalde, nekazaritzako espezieetako dibertsitate genetikoaren garapena nekazarien milaka urtetako lanaren emaitza da eta, bidezko denez, ez luke izan behar hamarkada batean merkataritza-labore bihur dezakeen enpresa baten jabetza pribatu. Geneek ez dute salgai izan behar.



NEKAZARITZA-POLUZIO LAUSOA

Nekazaritza-poluzio lausoa

Javier Ansorena Miner

SUSTRAI-31, 1992ko 2. Hiru hilabetekoa, 25 zk.

Fraisoroko Nekazaritza-laborategia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Nekazaritza-jarduerak eragindako poluzioa foku puntaletatik (tratamendu zoosanitarioen hondakinetatik, animalien deiekzioen isurketetatik, zelatzeko isurketetatik edo ureztatze-sailtako drenajetatik) eratorritakoa izan liteke eta horiek ubideetara edo arazteko sistemetara isur daitezke deskargatzeko tutuen edo kanalizazioen bidez. Hori dela eta, horiek batez ere lurrazaleko urei eragiten diete. Ezaugarri horiek direla eta, erraz identifikatu, neurtu eta kontrolatu ahal izango ditugu .../...

Aitzitik, nekazaritza-poluzio lausoa puntualak ez diren fokuetatik, lurzorutik eta atmosferatik esate baterako, eratorritakoa da. Horrenbestez, hori aurkitzea, kontrolatzea eta tratatzea zailagoa izango da. Hori da, adibidez, plagiziden eta ongarrien kasua. Horiek zeharka detektatu ohi dira, inguruneko urak aztertzearen bidez .../... Horiek batez ere lurpeko urei eragiten diete eta, lausoak izaki, isurketa-kanona (hori industriako isurkinei esleitu ohi zaie poluitzen duenak ordaintzen duela dioen printzipioari jarraiki) ezin da aplikatu horiekin.

Lurzorua izan ohi da funtsezko elementua poluitzaile horien hedadurari dagokionez, lurrazaleko eta, batez ere, lurpeko uretara garraiatzeko mekanismoan egiten duen iragazki-efektuaren ondorioz .../... Azaletik geruza sakonagoetara desplazatzen direnean, lurzoruak horiei neurri batean zein bestean eusten die. Lurpeko akuiferoetara iristeko behar duten denbora eta horietara iristen direnean duten kontzentrazioa landareen sustraiek zurgatutako kantitateen eta lurzoruaren eta aplikatutako substantzien propietate fisikokimikoen (sakoneraren, ehunduraren...) arabera izango dira.

ONGARRIAK

Plagiziden erabilera masiboak aurrera darraien bitartean, nekazaritza modernoan produkzio intentsiboko sistemak garatzeak ongarri inorganikoen, batez ere nitrogenatuen, kantitate handiak aplikatzea izan du ondorio. Lurpeko uretako nitratoen kontzentrazioak asko egin duela gora ikusi ahal izan dugu eta bide horretatik ezarri ahal izan da kausa-efektu erlazioa. Nitratoek eragindako poluzioaren garrantzia ingurugiroan eragiteaz gain animalien eta pertsonen osasunean ere eragina izatean datza .../... Nitratoa da landareek lurzoru nitrogenoa hartzeko modua. Lurzoruak ia ez ditu gordetzen, izan ere, oso disolbagarriak dira uretan, eta lurzoruari emandako kantitatea oso handia bada, soberan dagoena lixibiazioaren bidez arrastatuko da geruza sakonagoetara. Bide horretatik lurpeko akuiferoak poluituko dira. Gainera, landareak nitrato-kantitate gehiegi, metaboliza dezakeena baino gehiago, zurgatuko du. Hori dela eta, gehiegizko kopuru hori ere landarean geldituko da.

PRODUKTU FITOSANITARIOAK

Plagiziden bidezko poluzioak eta ongarrien bidezkoak badituzte hainbat antzekotasun, bai beren izaera lausoari dagokionez, bai elikagaien bidez pertsonetara transmititzeko arriskuari dagokionez. Dena dela, horrezaz gain, horiek kontrolatzeak berariazko zailtasunak ditu, ondoren adierazitako ezauzarrietatik eratorritakoak, hain zuzen:

- Erabilitako produktuen (organokloratuen, organsofosforatuen edo piretoideen, triazina, urea edo azido fenoxiazetikoaren motako herbiziden) kopuru handia eta propietate desberdinak direla eta, banan-banan hartu behar ditugu.
- Toxikotasun handia dela eta kantitate txikitan erabiltzen dira. Hori dela eta, zaila izango da detektatzea EEk ezartzen duen muga 0,0001 mg/l da, plagizida batzuk detektatzeko mugatik hurbil dagoena.

POLUZIO LAUSOAREN BESTE ALDERDI BATZUK

EAEko uretan nitratoek duten kontzentrazioari buruzko datuek adierazten dutenez, poluzioa ez da adierazgarria, itsasertzeko probintziei dagokienez behintzat. Espainiako mediterraneo aldeko zerrendako nekazaritza-eremuetan arazo handia izan liteke ongarritze-praktika desegokiek sortutako lurpeko uren nitratoaren bidezko poluzioa .../...

Uretako nitratoak ezabatzeko tratamenduen kostu handia dela eta, estrategiak prebentzioan oinarritu behar du. Horrenbestez, kontuan izan beharreko lehenengo elementua nekazari eta teknikariei erabilera-teknika egokiak erakustea izango da. Gisa horretan murriztu ahal izango dugu nekazaritza-jardueren ingurugiro-eragina.

Nekazaritza-praktika egokien kodeak garatzea bateragarria da ongarrri nitrogenatuen erabilera murrizteko neurriak ezartzearekin. Halaxe dio Eeko Kontseiluko Arteztarauak (12-12-1991), urak nekazaritzan erabilitako nitratoen bidez poluitzearen aurkako babesari buruzkoak:

- Ez aplikatu ongarrri nitrogenaturik udazkenean, hazkuntza aktiboko garaietan baizik.
- Neguko laboreak udazkenaren hasieran erein materia organikoaren deskonposizioaren ondorioz askatutako nitrogenoa zurga dezaten.
- Larre naturalen azalera handiak lantzea ekidin.
- Lastoa lurpean sartu. Horrela nitratoak zurgatuko dira, nahiz eta epe luzera lurzorua guztizko nitrogeno-edukiak gora egin.
- Zentzuz erabili ongarrri organikoak.

@ 1. jardueraren 4. eranskina



LURZORUAREN HIGADURA

1998ko Ingurugiro Egoera Euskal Autonomia Erkidegoan

Iturria: 1998ko Ingurugiro Egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. IHOBE. 197-199 orr.

KAUSAK

Lurzoruaren higadura fenomeno konplexua da. Bertan bi prozesuk esku hartzen dute. Hona biak: agregatuen haustura eta hortik sortzen diren partikula finak beste leku batzuetara garraiatzea. Lurzoruaren geruza galtzeaz gain (horrek desertifikazioa laguntzen du), arrastatutako partikulek poluzioa (plagizidak, metalak, nutriente mineralak eta abar) transmititzeko bide izan daitezke. Fenomeno naturala dugu, baina giza jarduerak azeleratutakoa. Higadura uraren edo haizearen bidez lurzorian eragiten duen edo isurketa-uren emaria edo abiadura handitzen dituen edozein giza jarduerak sor dezake.

Uraren ondoriozko higaduraren arriskua goren mailakoa da eurite handien garaian, lurzoria urez aseta dagoenean, landaredi-estaldura urria denean eta lurzoruko azaleko uraren mugimendua areagotzen denean. Horren ondorioz sortzen den isurketaren eraginez, lurzori-kantitate handiak kentzen dira eta uraren ibilbide nagusi gisa jarduten duten higadura-erretanak sortzen dira. Horrek, gainera, areagotu egiten ditu arazoak.

Haizearen ondoriozko higaduraren eragina, klima idorra eta erdidorra, ia beti da lurzoruaren landaredi-estaldura gutxitzearen ondorio. Hori, halaber, gehiegizko artzaintzaren edo landaredia etxeko edo nekazaritzako erabileretarako kentzearen ondorio izaten da.

ERAGINAK

Anitzak dira lurzoruaren higaduraren ondorioz sortutako eraginak eta horietatik eratorritako ondorio ekonomikoak balioestea zaila izaten da. Uraren bidezko higaduraren ondorioz, galdu egiten da lurzoruetako geruza emankorra. Galera hori hainbat milimetrotakoa da urtero (Morgan, 1986). Gisa berean, murriztu egiten da urari eusteko ahalmena.

Zaila da balioestea zein den higaduraren ondorioz galdutako nutriente eta materia organikoen kantidadea berreskuratzeko beharrezko ongarrien kantidadea. Alabaina, ziur dakigu horretarako diru-inbertsio handiak egin behar izaten direla. Lurzoruaren higadurak ekosistemei ere eragiten die, batez ere landaredi-estaldura (gutziz nahiz neurri batean) suntsitu den tokietan.

GARRANTZIA

Gaur egun lurzoruaren higadurak EAEko lurzorien %20ri eragiten dio, batez ere Arabako Lurralde Historikoan (CORINE 1992). Europako Erkidegoko hegoaldeko eskualdeetako lurren higadura-arriskuari buruzko CORINE proiektuan lortutako emaitzen arabera, EAEko lurzoruak higadura izateko arrisku potentzial handia du. Horrek esan nahi du eremu horretako baldintza naturalek higadura errazten dutela eta hori ia ziur gertatuko dela, kudeaketa eraginkor baten bidez lurzoria babesteko neurri aktiboak hartzen ez badira behintzat.

NEURRIAK

Higadura kontrolatzeko programen funtsezko alderdietako bat gehiegizko higadura zein lekutan eta garaitan gerta daitekeen aurreikustea izango da. Higaduraren ondorioz lurzoria leku edo une jakin batean galtzea faktore ugariaren arabera da. Faktore horiek, gainera, adierazpen erraz batean bildu dira. Hauxe du izena: "lurzoruaren galeraren ekuazio unibertuala." Ekuazio hori gaur egun mundu osoan erabiltzen da higagarritasunaren mapak egiteko.

EAEn gaur egun dagoen landaredi-estaldura oso tresna eraginkorra da higaduraren aurka. Hori ezabatuko balitz areagotu egingo litzateke arazoa. Babeserako politikak ezartzerakoan garrantzitsua da ziurtatzea garapenak, nekazaritza-berrikuntzak edo bestelako jarduerak ez dakartela landaredi-estaldura horren kalterik edo ezabaketarik.



2. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
<i>Nekazaritza</i>	<i>Teknologiako gela</i>	<i>2 ordu</i>
<i>denboran zehar</i>	<i>Liburutegia eta etxea</i>	<i>1 ordu</i>

HELBURU OPERATIBOAK

- Nekazaritzaren, natur ingurunearen eta ingurugiroaren arteko harremanak ulertzea.
- Nekazaritzarekin zerikusia duten oinarrizko ingurugiro-kontzeptuak aurkeztea: nekazaritza (jasangarria, konbentzionala, integratua eta ekologikoa) natur ingurunea, eutrofizazioa, lixibiazioa, ingurugiroa, hondakin organikoak, hondakinen kudeaketa, produktu transgenikoak, biodibertsitatea.

BALIABIDEAK

- ◆ Eranskina: "Nekazaritza Neolitikotik gaur egunera".
- ◆ Eranskina: "Oinarrizko termino eta definizioen glosategia".
- ◆ Lurra aldizkaria. 97 posta-kutxatila, Bergara. Email: Oca Bergara@nekazariagipuzkoa.net.
- ◆ Ingurugiro Prestakuntzako Karpeta, Bizkaiko Foru Aldundia.
- ◆ Nekazaritza-zentsua (EUSTAT).
- ◆ "1998ko Ingurugiro egoera Euskal Autonomia Erkidegoan" (IHOBE).
- ◆ "La agricultura y la contaminación del agua por nitratos" (Ramales eta Ocio J.A.) M.A.P.A. dibulgazio-orriak, 1993.

METODOLOGIA

Jarduera honen bidez lanerako helburuetan ezarritako nekazaritzari eta ingurugiroari buruzko oinarrizko kontzeptuak aurkeztu nahi dira. Horretarako nekazaritzak historian zehar izan duen bilakaeraren inguruko ibilbidea egingo dugu, Neolitikotik gaur egunera bitartean. Jarduera hau garatzeko bi saio egin beharko ditugu.

1. Oinarrizko gaiaren azalpen teorikoa: "Nekazaritza Neolitikotik gaur egunera" (eranskina).

Aipamen berezia egin behar zaio gaur egungo nekazaritzari, berorren gizarte-alderdiei, zentsuei, produkzioei, eraginei eta abarri. Saioa garatu ahala, lanerako helburuetan barne hartutako oinarrizko ingurugiro-kontzeptu guztiak aurkeztuko ditugu.

2. Aurreko aurkezpena kontuan izanik, gela bosna kideko taldetan banatuko dugu, ondorengo gai hauetakoren bati buruzko txostena idazteko:
 - Nekazaritza-jarduera eta natur ingurunea.
 - Hondakin organikoak, ondorioak eta eragina.
 - Hondakin kimikoak, ondorioak eta eragina.
 - Landare-espezieen hautespen genetikoa eta biodibertsitatea.
 - Nekazaritza jasangarria.

- Elikagaiak eta giza osasuna.
- Produktu transgenikoak.

Taldeek beren gaiei buruzko informazioa bilatu eta bildu beharko dute gelatik kanpo. Informazioa aztertzeko eta txostena egiteko lana gelan bertan egingo dugu.

Azkenik, bateratze-lana egingo dugu eta taldeek prestatu dituzten materialak aurkeztuko dituzte.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Txostena egitea.
- Bateratze-lana.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Informazioaren kalitatea eta kantitatea.
- Informazioaren ordena.
- Komunikazio ona.

a

2. jarduera



<p>IZENBURUA</p> <p>Nekazaritza denboran zehar</p>	<p>KOKAPENA</p> <p>Teknologiako gela Liburutegia eta etxea</p>	<p>KALKULATU DEN DENBORA</p> <p>2 ordu 1 ordu</p> 
---	---	--

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Nekazaritzaren, natur ingurunearen eta ingurugiroaren arteko harremanak ulertzea.
- ☞ Nekazaritzarekin zerikusia duten oinarritzko ingurugiro-kontzeptuak aurkeztea: nekazaritza (jasangarria, konbentzionala, integratua eta ekologikoa) natur ingurunea, eutrofizazioa, lixibiazioa, ingurugiroa, hondakin organikoak, hondakinen kudeaketa, produktu transgenikoak, biodibertsitatea.

GARAPENA

1.- Azalpen teorikoa

Irakasleak nekazaritzaren historiari buruzko azalpen teorikoa egingo du, Neolitikotik gaur egunera bitartean. Bide horretatik, nekazaritzarekin zerikusia duten oinarritzko ingurugiro-kontzeptuak azalduko ditu. Informazio hori osatzeko laguntza gisa honako eranskina erabil dezakezue: "Nekazaritza Neolitikotik gaur egunera".

2.- Txostena egitea

Azalpen hori amaitu ondoren, talde txikiak osatuko dituzue (hiru eta bost kide artekoak) eta taldeek lan bana egin beharko dute liburutegian edo/eta etxean eta gelan ondorengo alderdi hauetakoren bati buruz:

- Nekazaritza-jarduera eta natur ingurunea.
- Hondakin organikoak, ondorioak eta eragina.
- Hondakin kimikoak, ondorioak eta eragina.
- Hautespen genetikoa, ondorioak eta eragina.
- Elikagaiak eta giza osasuna.
- Produktu transgenikoak eta horien ondorioak.
- Nekazaritza jasangarria.

Lan honen helburua nekazaritzaren, natur ingurunearen eta ingurugiroaren arteko harremanak eta bertan izandako eraginak bilatzea izango da. Taldeko kideetako bakoitzak taldeari egokitu zaion alderdiari buruzko informazioa bilatu beharko du. Ondoren, informazio hori ordenatu egin beharko duzue, aztergai duzuenak natur ingurunean dituen ondorioen eta eraginaren garrantzi handia ardatz gisa hartuta.

Gelan taldeka egingo duzue lan eta banaka, berriz, liburutegian edo etxean.

Ondoren, gelan bateratze-lana egingo dugu taldeko kide bakoitzak lortutako materialarekin eta ordezkari bat aukeratuko duzue bost minututan gela osoaren aurrean garatzeko taldeak atera dituen ondorioak.

@ 2. jardueraren 1. eranskina



NEKAZARITZA NEOLITIKOTIK GAUR EGUNERA

Nekazaritzak, gizakiak garatutako jarduera den aldetik, gure bizitzaren oinarri diren elikagaiak eskaintzea du funtsezko funtzio. Izan ere, horien bidez lortzen ditugu gure zelulak eta ehunak eraikitzeke eta berritzeke oinarrizko nutrienteak, bi hitzetan esateko, gure bizia.

Nekazaritza-jarduerak giza garapena ahalbidetu du, horri esker sortu baitziren denborak aurrera egin ahala herri, hiribildu eta hiri bilakatu diren lehen giza asentamenduak. Horietan sortu ziren nekazaritza-produkzioaren zerbitzuan oinarritutako ekonomia-jarduera asko eta horiek, gaur egun, produkzioaren beste sektore batzuetarako, hain zuzen industria eta zerbitzuetarako, jauzia eman dute.

Gizakiok ere biosferako elementu gara eta naturako baliabideak erabiltzen ditugu, beren funtzionamenduan esku hartuz. Giza jarduerak eraginak izan dituzte ingurugiroan eta baliabideak ez ditugu oso modu jasangarrian erabili. Bestela esan, gure ustiapenak baliabideen galera eragin du. Nekazaritzak "lurra edo lurzorua" erabiltzen du oinarrizko baliabide gisa. Horri dagokionez, oso funtsezkoa da hori ez agortzea edo degradatzea, oraingoz gizateriak ez baitu "lurra" beste bizi-espaziorik eta hori bizirik eutsi behar diogu hori erabiltzen jarraitzeko aukera izateko. Hori dela eta, oso garrantzitsua izango da ingurugiroa errespetatuko duten eta, aldi berean, "bizia" sortuko duten elikagaiak ekoiztuko dituzten nekazaritza-teknikak garatzea.

Gizakia biltzaile eta ehiztari izan zen Historiaurrean. Neolitikoan, K.a. 8000-3500 artean, berriz, basoko landareak biltzetik kontsumitzen zituen landareen bizi-baldintzak hobetzera eta animaliak etxekotzera pasa zen. Horietatik janaria, jantziak, babesak, beroa eta abar lortu zituen. Hasieran landare lehiaztaileak kentzera mugatu ziren eta, horretarako, suaren bidez garbitzen zituzten sastrakak eta landareen errautsek berek egiten zuten ongarrien funtzioa. Landare lehiaztaileak eskuz ere kentzen zituzten. Aitzurtzeko makila edo oinarrizko aitzurra erabiltzen zuten, beren inguruan biltzen zituzten eta ondoren laborantzan zehar zainduko zituzten haziak zulotxoetan sartzeko. Zerealen haziak zituzten elikagai eta gisa horretan sortu ziren beren geografia-banaketaren arabera landare jakin batzuetan oinarritutako zibilizazioak: garia Europan, artatxikia Afrikan, arrosa Asian eta artoa Amerikan.

Lehen lanabesak lurra goldatzeko eta lantzeko egin zituzten. Horretarako makilak, adar okerrak eta, jakina, giza indarra edo energia erabili zituzten. Ondoren, lanabes horiek animalien (behi- eta zaldi-azienden) energia erabiltzeko egokitu ziren. Bide horretatik golde erromatarra, ongarririk organikoak (simaurra esaterako) eta abar agertu ziren. Nekazaritza-teknikak ere garatu zituzten: lugorri-sistema adibidez (urtebetetik behin edo bi urtetik behin lurrari atsedean hartzen uztea). Baita burdinazko lanabesak (kultibadoreak, eskuareak, golde belarridunak) eta laborantzako, inausteko, belarrak kentzeko, garia jotzeko eta abarretarako teknikak ere.

XIX. mendean ongarririk kimikoak eta lugorriak bazter uztea eta lurra harmonia handiagoan lantzea ahalbidetu zuen labore-txandaketa (elkarren hurreneko urteetan landare desberdinak lantzea lursail berean) sortu ziren. Horrezaz gain, landareak hautatzen hasi ziren, parasitoei aurre egiteko produktu naturalak erabiltzen hasi ziren eta abar.

XX. mendean gertatu ziren nekazaritzaren garapenaren inguruko aurrerabide nagusiak, funtsezko bi faktorek baldintzatutakoak. Faktore horietako lehena arloaren mekanizazio handia da, gizakiaren ahalegin fisikoa nabarmen murriztea ahalbidetu duena eta ahalegin fisiko handia eskatu izan duen lanaren duintasuna ekarri duena (Historiaurrean lor-abere gisa lan egin, uzta eskuz bildu, kargak batetik bestera eraman eta abarretik gaur egunean kabina isolatuetatik eta egokitutakoetatik makinak gidatzera egindako aurrerabidea aurreko 5.000 urteetan egindakoa baino handiagoa izan da). Bigarrena, lehena-ekin zerikusia duena, aldiz, produkzio-gaitasuna eta, horren ondorioz, elikagai gehiago ekoizteko gaitasuna, handitzea da. Horrek berekin ekarri du pertsona gehiago elikatzeko ahalmena. Nekazaritza-produktibitatea handitzearen ondorioz nabarmen gutxitu da nekazaritza-biztanleria. XX. mendeko zentsuen arabera, gure erkidegoan mende hasieran nekazaritza-biztanleria %50-60 izatetik gaur egun %3koa izatera pasa da. Gehien garatutako herrialdeetan prozesua antzekoa izan da eta, hainbeste murriztu den arren, produkzioa 10-20 aldiz handiagoa da (produktu batzuei dagokionez baita 50 aldiz

handiagoa ere). Horrek esan nahi du orain 100 urte nekazari batek beste pertsona batentzako edo birentzako janaria ekoizten zuela eta gaur egun, berriz, 400–500 pertsona ingururentzako janaria ekoizten duela. Nork bere burua hornitzeko nekazaritza merkatuak hornitzeko merkataritza–produktoria pasa gara. Baserri- eta nekazaritza–inguruneak biztanleak galdu ditu eta biztanleria elikagaien kontsumitzaile baina ez ekoizle diren hirietan bildu da. Hala eta guztiz ere, herrialde garatuetan elikagai–soberakinak sortzen dira.

Orain 50 urte inguru gure erkidegoko familia–ustiapen baten produkzio–egiturak honako premia hauei egin behar zien aurre:

Lurra lantzeko animalien premiak:

- Bazka (zelaiak, alpapa, astorkia, zalkeak, hirustak).
- Pentsuak (zerealak, artoa, babak, eruak).
- Erroak (arbiak, bazka–erremolatxa).
- Azpiak (garioa, lastoa).

Pertsonen premiak:

- Aleak: garia (ogia), artoa (borona, taloa), dilista, babarruna, txitxirioa.
- Frutak: sagarra (sagardoa), udarea, mertxika, intxaurra, hurra, gaztaina eta abar.
- Patata.
- Animaliak: zerria, hegaztiak (oiloak), behiak, ardiak, erleak eta abar.

Salmenta:

- Espezializatutako batzuk: esnea, patata, haragia.
- Guztietako soberakinak.

Gaur egun ustiapenak espezializatu egin dira eta oro har produktoria eta merkatura bideratutakoak izan ohi dira. Bide horretatik, honako ustiapenak bereizi ahal izango ditugu: esnetarako behiak, haragitarako behiak, esnetarako ardiak, haragitarako ardiak, haragitarako hegaztiak, arrautzak jartzeko hegaztiak, txerri–hazkuntza, zereal–ustiapena, patata–ustiapena, frutagintza, erremolatxa–ustiapena eta mahastizaintza. Horrela bada, 20–30 produktu lortu beharrean produktu nagusi bat eta bigarren mailako produktu eta batzuetan azpiproduktu izan ohi den beste bat edo bi baino ez dira lortzen. Adibidez, txekorra (haragia) esnetarako behien produkzioan edo oilo–haragia arrautzetarako produkzioan. Gisa horretan errentagarriagoak izaten dira produkzio–egiturak (makinak, tresnak, lurrak eta abar).

Alabaina, ez zen mekanizazioaren ondorio bakarrik izan produktibitatearen igoera. Izan ere, beste hainbat faktore erabakitzaile ere izan ziren:

ESPEZIEEN HAUTESPEN GENETIKOA: morfologiaren edo/eta produktibitatearen inguruko alderdian oinarrituta egin da batez ere. Horren eraginez, landareek gehiago ekoizten dute edo estetikoki erakargarriagoak dira. Alabaina, espezializatuagoak direnez, parasitoekiko sentzibilitate handiagoa dute. Horrek berekin dakar oro har borroka kimikoan oinarritutako teknikak erabiltzea parasito horiek kontrolatzeko. Baina, horren eraginez, efektu kaltegarriak sortzen dira, lurzorua eta elikagaien poluzio kimikoa, giza osasunaren inguruko eraginak dakartzana, eta biodibertsitatearen galera, adibidez, izan ere, produktu fitosanitarioek izaki bizidun guztietan izaten dute eragina oro har.

ONGARRIZTATZEKO TEKNIKEN GARAPENA: industrian sortutako ongarri inorganikoek lurzorua erabilera intentsiboa eta jarraitua ahalbidetzen dute, landareek erabilitako nutrienteak berriz ezartzen dituztelako. Alabaina, soberan dagoena lurpeko uretara eta ubideetara arrastatzen da lixibiazioaren bidez eta gisa horretan poluitu egiten dira lurzoruak, akuiferoak eta ibaiak eta aintziren eta urtegien eutrofizazioa gertatzen da.

PARASITOEN KONTROLA: produktu plagizida, intsektizida, fungizida eta herbizida ugari erabiltzen dira intsektuen, landareetan gaixotasunak sortzen dituzten infekzio–organismoen eta belar lehia–tzaileen aurka. Erabilera intentsibo horren ondorioz areagotu egiten dira lurzoruko hondakinak, elikagaiak poluitu egiten dira eta, kasurik larrietan, elikagaien bidezko toxikopenak gertatzen dira.

Lehenago mekanizazioa aipatu dugu nekazaritza–produktoria handitzeko funtsezko faktore gisa; sakoneko laboreen laborantza nahiz animalia–indarraren bidez landu ezin ziren lurren luberritzea eta

a 2. jardueraren 1. eranskina



laborantza. Faktore horrek ere arazoak sortu ditu, ekosistema naturalen eta biodibertsitatearen galera esate baterako.

Laburbilduz, nekazaritza-jarduera modernoek produkzioa asko handitzea ahalbidetu dute, baina ingurugiroarekin zerikusia duten eragin negatiboak ere izan dituzte (biodibertsitatearen galera, ekosistema naturalen galera, lurzoruen degradazioa, parasito ugari agertzea, lurzorua eta urak poluitzea, elikagaiak poluitzea eta, kasu larrietan, elikaduraren bidezko toxikapenak).

Gaur egun nekazaritza-produkzioetako joerak produkzio integratura eta gure jardueraren jasangarritasunera bideratzen hasi dira; bestela esan, elikagai osasungarriagoak ekoiztera, lurra etorkizunean ekoizten jarraitzeko egoeran uztera eta ingurugiroan eragiten duten produktuak murriztera.

@ 2. jardueraren 2. eranskina



ONARRIZKO TERMINO ETA DEFINIZIOEN GLOSATEGIA

Nekazaritza:

Konbentzionala: Elikagaiak ekoizteko sistema, oro har erabiltzen dena, ongarrizatzeko, izurriak kontrolatzeko, mekanizatzeko eta ura, haziak eta abar erabiltzeko teknikak ahalik eta intentsitate handienarekin erabiltzearen bidez produkzioaren intentsifikazioa dakarrena.

Ekologikoa: Sintesiko produktu kimikorik —batez ere ongari eta plagizidarik—erabili gabe eta ekintza mekanikoa ezinbestekora murriztuz elikagaiak ekoizteko sistema.

Integratua: Erregulaziorako mekanismo eta baliabide naturalak erabiltzen dituen elikagaiak ekoizteko sistema, ingurugirorako eragin kaltegarriak ekiditen dituen eta produkzioaren jasangarritasuna ziurtatzen duena.

Lanabesa: Nekazaritzako lanak egiteko erabiltzen den tresna.

Biodibertsitatea: Espezie ugari izatea ezaugarri duen ingurunearen nolakotasuna. Naturguneetako izan ohi da.

Garapen jasangarria: Ingurugiroa gaur egungo premiak asetzeko, baina ingurune horrek etorkizuneko belaunaldien premiak asetzeko izango duen gaitasuna arriskuan jarri gabe, erabiltzen duen garapen-eredua.

Ekoauditoretza edo ingurugiro-auditoretza: Ingurugiro-egoeraren eta enpresa baten funtzionamenduak ingurugiroan duen eraginaren analisisa eta balioztatzea.

Ingurugiro-eraginaren azterketa (IEA): Jarduera berri batek eragin ditzakeen natur ingurunearen edo ingurune sozioekonomikoaren aldaketan eta sor daitezkeen alderdi negatiboak minimizatzeko neurri zuzentzaileen analisisa.

Eutrofizazioa: Ura materia nutritiboekin (batez ere ongari, fosfato eta nitratoekin) aberastea nutrizio-poluzioarekin asimila daiteke eta uretako landarediaren (batez ere mikroskopikoaren) garapen handia eragin dezake, baita, luzera begira, uraren oxigenoaren galera ere. Horren eraginez arrainen eta uretako animalien bizia eragotz dezake hedadura zabaletan.

Ingurugiro-kudeaketa: Ingurugiro-politikak, horren helburuek eta erantzukizunek definitzen duten kudeaketa-jardueren multzoa, ingurumen-helburuak planifikatzearen, emaitzak neurtzearen eta ingurugiro-eraginak kontrolatzearen bidez jarduera horiek ezartzeko balio duena.

ISO 14000: Ingurugiroa kudeatzeko sistemak ezartzearekin, ekoauditoretzekin, bizi-zikloarekin eta etiketatu ekologikoarekin zerikusia duen nazioarteko arauen multzoa.

Lixibiazioa: Uraren (euriaren edo ureztatzearen) bidez materia disolbagarriak lurzorua goiko horizonteatatik horizonte sakonagoetara arrastatzeko prozesua. Prozesu horren ondorioz lurzoru pobretu egin daiteke eta lurpeko urak poluitu egin daitezke.

Ingurugiroa: Natur ingurunearen eta espazio horretan gizakiak sortzen dituen jarduera, prozesu eta bitartekoen (faktore sozioekonomikoaren) multzoa.

Natur ingurunea: Naturgune batean bizi diren espezie, klima eta materien multzoa.

Ingurugiro-politika: Ingurugiroari dagokionez entitate batek zuzendaritzaren aitortpen formalaren bidez bere egindako helburu eta xede orokorrak. Esan beharrik ez dago ingurugiro-politikak dagozkion ingurugiro-legeria eta araudia errespetatu behar dituela.

Hondakina: Erabili edo aplikatu ostean gelditzen den produktu baten edo horren eratorrien kantitatea.

Ingurugiroa kudeatzeko sistema: Ingurugiro-politika ezartzeko beharrezkoak diren antolamendu-erantzukizunen, prozeduren, prozesuen eta bitartekoen multzoa.

Jasangarritasuna: Erreserbak agortu gabe eta epe luzerako produkzioa ahalbidetuz lurzorua produkzio naturala (kasu honetan nekazaritzakoa) ateratzeko aukera ematen duen produkzio-prozesuaren nolakotasuna.

Azpiproduktua: Produkzio-jarduera baten ondoriozko hondakina, beste jarduera baten "lehengai" bihurtzen dena.

Transgenikoa: Beste espezie baten geneak sartzearen ondorioz egitura genetiko aldatua izango duen espeziea. Gaur egun nekazaritzaren eremuan gehien erabiltzen diren espezie transgenikoak soia, artoa eta tomatea dira:

Soiari gene bat sartu zaio herbizida orokor baten (glifosatoaren) ekintza jasateko eta, hori dela eta, herbizida horrekin egindako tratamenduaren ostean iraungo duen bakarra izango da.

Artoari dagokionez, hainbat alderdi aldatu dira: taladro-izurriarekiko erresistentzia, uzta lurrertzearekiko erresistentzia, lehortearekiko erresistentzia.

Tomateari heltze-prozesua aldatzen (atzeratzen) duen gene bat sartu zaio eta, hori dela eta, tomate horrek salmenta-lineetan gehiago irautea lortu dugu.



3. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
<i>Gure lanbide-jardueren ingurugiro-eragina</i>	<i>Gela. Etxea</i>	<i>2 ordu</i>

HELBURU OPERATIBOAK

- Nekazaritza-jarduerak dituen ingurugiro-eragin nagusiak identifikatzea.
- Horiek gaur egun duten maila aztertzea.
- Eragin horiek ekidingo edo murriztuko dituzten alternatibak proposatzea.

BALIABIDEA

- ◆ Nekazaritza-jarduera baten fluxu-diagrama baten eredu.

METODOLOGIA

Jarduera honetan nekazaritza-jardueraren ingurugiro-eragin nagusiak aztertuko dira. Nekazaritza-sektorea oso zabala denez, azpisektoretan banatzea proposatzen da, gaia landu ahal izateko: nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza. Hori dela eta, ikasleak hiru taldetan banatzea proposatzen da, taldeek azpisektore bana gara dezaten.

Dena dela, talde askoko gelen kasuan interesgarriagoa izan liteke talde gehiago sortzea. Horretarako, bereiz lan ditzakegu nekazaritza intentsiboa eta estentsiboa, haragitarako abeltzaintza eta esnetarako eta abar, betiere egin nahi diren taldeen kopuruaren eta ikastetxearen eskualdean egingen diren nekazaritza-jarduera nagusien arabera.

Taldeak egiterakoan ahaleginak egingo ditugu aztertu beharreko azpisektorearekin harreman gehien duten ikasleak gutxien dutenekin elkartzeko. Horrela, talde heterogeneoak eta ikuspegi desberdinak dituzten kideek osatutakoak antolatu ahal izango ditugu.

1. Hainbat nekazaritza-jardueraren fluxu-diagramak egingo ditugu eta taldeek aztergai duten jarduerak dituen eragin nagusiak zein diren detektatuko dute. Jardueraren lehen zati hau egingo nahikoak izango dira 30 minutu. Ondoren, taldeek idatziz jaso dituzten eraginak azalduko dituzte eta gela osoak iruzkinak eta ekarriak egingo ditu.
2. Berriz ere taldetan bilduko dira eta eraginak lantzen hasiko dira. Horretarako galdetegiari erantzungo diote.

Jarduera hau gelako bi saiotan landuko dugu. Alabaina, horrezaz gain, taldeek etxean ere egin beharko dute lan.

EBALUAZIOA

JARDUERAK


- Fluxu-diagrama egitea eta galdetegia erantzutea.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ideiak ordenatuta eta zuzen aurkeztea.
- Garatutako edukiak.
- Lan-taldeko parte-hartzea.

FLUXU-DIAGRAMAREN EREDUA

NEKAZARITZA-JARDUERA



a

3. jarduera



<p>IZENBURUA</p> <p>Gure lanbide-jardueren ingurugiro-eragina</p>	<p>KOKAPENA</p> <p>Gela. Etxea</p>	<p>KALKULATU DEN DENBORA</p> <p>2 ordu</p> 
--	---	---

HELBURU OPERATIBOA

- ☞ Nekazaritza-sektoreak dituen ingurugiro-eragin nagusiak identifikatzea.
- ☞ Horiek gaur egun duten maila aztertzea.
- ☞ Eragin horiek ekidingo edo murriztuko dituzten alternatibak proposatzea.

GARAPENA

Jarduera honetan jarduera baten sekuentziak eta nekazaritza-jardueren ingurugiro-eragin nagusiak adierazteko fluxu-diagramak aztertuko ditugu.

Gela hiru taldetan banatuko dugu, taldeek nekazaritza-sektoreko azpisektore bana lantzeko: nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza.

1. Taldeak osatu ostean eta hautatutako nekazaritza-azpisektorea aintzat hartuta, fluxu-diagrama egingo duzue. Bertan ibilbide baten bidez adieraziko dituzue jarduera horretan egiten diren lan nagusiak eta ibilbidearen pauso bakoitzarekin zerikusia duten eraginak.

Zati hau egiteko 30 minutu izango dituzue.


Ondoren, taldeek idatziz jaso dituzten eraginak azalduko dituzte eta gelako gainerako kideek horiei buruzko iruzkinak eta ekarriak egingo dituzte.

2. Berriz ere taldetan bilduko zarete eta ondoren duzuen galdetegiari erantzungo diozue. Hori betetzeko eta gelako gainerako taldeekin egindako lanarekin bateratzeko gelako beste saio bat izango duzue.

1. Nekazaritza-jardueretan ingurugiro-eraginak dituzten hainbat zeregin egiten dira. Hauta ezazue nekazaritza-sektore bat eta adieraz itzazue fluxu-diagrama baten bidez bertan egiten diren lanak eta horiek dituzten eraginak.

FLUXU-DIAGRAMA

NEKAZARITZA-SEKTOREA:



2. Ingurugiro-eragina: ingurunean edo horren osagaietakoren batean eragin kaltegarria edo mesedegarria duen ekintza edo jarduera.

Jarduera baten eragina honela defini daiteke: aldatutako etorkizuneko ingurugiro-egoeraren, jarduera egin ondoren izango litzatekeenaren, eta jarduketa hori gertatuko ez balitz izango zukeen bilakaeraren ondoriozko etorkizuneko ingurugiro-egoeraren arteko diferentzia.

Egin duzuen diagrama kontuan izanik, hausnar ezazue jarduera horiek dituzten eraginei eta jarduera jasangarria izan dadin lagungarri izan daitezkeen alternatibei buruz.

- Zein eragin dituzte?
- Zein dira eragin horien kausak?
- Nola ekidin edo murriz daitezke eragin horiek?
- Zein neurri hartuko zenituzkete jarduera jasangarria izan dadin?



4. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Azukre–erremolatxaren laborantza	Teknologiako gela. Nekazaritza–praktikak. Etxea	2 ordu

HELBURU OPERATIBOAK

- Grafikoki adieraztea erremolatxaren produkzio–prozesua.
- Eraginak eta horien efektuak identifikatzea eta aztertzea.
- Labore horren ingurugiro–eragin kaltegarriak murrizteko irtenbideak bilatzea.

BALIABIDEAK

- ◆ “Asociación para la investigación y mejora del cultivo de la remolacha azucarera”, A.I.M.C.R.A., elkarteko aldizkaria (855 posta–kutzatila, 47080 Valladolid).
- ◆ “www.aimcra.com” web–orria.
- ◆ Azucarera Ebro Agrícola, S.A. (AEASA) erakundeko informazio–orriak: “www.aeasa.com”.
- ◆ Erremolatxaren kontratuak eta ordainketa–moduak.
- ◆ “Lurra informazio–buletina” (Arabako Foru Aldundia).
- ◆ “Azukre–erremolatxaren laborantza” izeneko txostena.

METODOLOGIA

Unitate honen garapenak bi zati ditu. Lehenengoan, erremolatxaren laborantzara hurbildu ostean, jarduera horrek dituen ingurugiro–inplikazioak ezagutuko ditugu. Bigarren zatian, berriz, sortutako eragin horiek gainditzeko irtenbideak eskaintzen ahaleginduko gara, taldekako lanen bidez.

1. Erremolatxaren laborantza eta horretarako teknologiaren inguruko azalpena, fluxu–diagrama baten bidezkoa.

Prozesuko eraginak bilatzea eta identifikatzea.

Irakasleak erremolatxaren laborantzaren fluxu–diagrama azalduko du pixkanaka. Horretarako ikasleentzako materialean proposatzen den ereduaren azetato–fotokopia erabiliko du. Hori produkzio–prozesua azaldu ahala beteko da, honekin batera doan eredu osatzera iritsi arte.

2. Prozesuan sortutako eraginetarako irtenbideak aztertzea eta eskaintzea.

2 edo 3 kideko taldeak egingo dituzte. Taldeei produkzio–prozesuaren alderdi desberdinek dituzten ingurugiro–eraginak bilatzeko eta identifikatzeko eskatuko diegu. Informazio horren laguntzaz honako fitxa hau beteko dute: “Erremolatxaren laborantzaren eragina”.

Beharrezkoa balitz lana etxean osatu beharko lukete proposatutako gaiari buruzko informazioa biltzeko.

Talde–lanak bateratzea eta taldearen ondorioak aurkeztea.

Jarduera honen iraupena ordu beteko bi saiotakoa litzateke, gelan.

EBALUAZIOA

JARDUERAK


- Erremolatxaren laborantzaren fluxu-diagrama egitea.
- "Erremolatxaren laborantzaren eragina" fitxa.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Informazioaren kalitatea eta kantitatea.
- Horren ordena eta hurrenkera.
- Eskaintako irtenbideen kantitatea eta kalitatea balioetsiko dira, baita irtenbideen arrazionaltasuna ere.



FLUXU-DIAGRAMA



a

4. jarduera



<p>IZENBURUA</p> <p>Azukre–erremolatxaren laborantza</p>	<p>KOKAPENA</p> <p>Teknologiako gela. Nekazaritza–praktikak Etxea</p>	<p>KALKULATU DEN DENBORA</p> <p>2 ordu</p> 
---	--	---

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Grafikoki adieraztea erremolatxaren produkzio–prozesua.
- ☞ Eraginak eta horien efektuak identifikatzea eta aztertzea.
- ☞ Labore horren ingurugiro–eragin kaltegarriak murrizteko irtenbideak bilatzea.

GARAPENA

Unitate honen garapenak bi zati ditu. Lehenengoan, erremolatxaren laborantzara hurbildu ostean, jarduera horrek dituen ingurugiro–inplikazioak ezagutuko ditugu. Bigarren zatian, berriz, sortutako eragin horiek gainditzeko irtenbideak eskaintzen ahaleginduko zarete, taldekako lanen bidez. Jarduera honen iraupena ordu beteko bi saiotakoa litzateke, gelan.

1. Erremolatxaren laborantza eta horretarako teknologiaren inguruko azalpena, fluxu–diagrama baten bidezkoa. Prozesuko eraginak bilatzea eta identifikatzea.
2. Aurreko saioan landutako gaiaren eraginetarako irtenbideak aztertzea eta eskaintzea.

1. Azukre-erremolatzaren laborantza da Arabako lurraldean tradizio gehien duenetako bat. Orain, gela guztiaren artean, jarduerako diagrama-fluxua osatuko dugu.

Honakoak dira produkzio-prozesuko faseak edo pausoak:

- Materialak biltzea.
- Makineria prestatzea (erregulatzea eta doitzea, ereiteko makina, tratamenduetarako ekipoa).
- Lurzorua prestatzea.
- Ongarritzatzea.
- Ereitea.
- Tratamenduak: intsektuak, belarrak...
- Ureztatze-sistema instalatzea.
- Ureztatzea eta ongarriak eta fitosanitarioak aplikatzea.
- Ekipoak kentzea.
- Biltzea.
- Garraiatzea.

Horrezaz gain, honako txosten hau kontsulta dezakezue:

TXOSTENA

AZUKRE-ERREMOLATXAREN LABORANTZA

Azukre-erremolatzaren laborantza Arabako lurraldeko tradiziozko laborantza estentsiboaren eredu bat da. Erremolatzaren produkzioa asko handitu da eta errendimendua ere lehengoa baino handiagoa da, nekazaritza-teknologia guztiak aplikatzeari esker. Horien artean aipatzekoak dira barietateak produktibitatearen arabera hautatzea, ureztatzea, intsektuen eta belar gaiztoen kontrola eta mekanizazioa. Esan genezake erremolatzaren laborantzak laburbiltzen dituela ingurugiroan eragin handia duen garapen teknologikoaren berezko ezaugarriak.

Gainera, azukre-industriarekin kontratatutako laborantza denez eta kontratua erreferentzia gisa hartuta produkzioa soberakinduna izatearen edo ez izatearen arabera prezioak eta azukrearen %aren arabera aberastasuna adierazten dituzten taulak daudenez, uste dugu ekonomiaren ikuspegitik une honetan interesgarria dela hain intentsiboak ez diren eta, horrenbestez, ingurugiroan eragin txikiagoa izango duten teknikak aplikatzea, betiere produkzioa kontratuetako ekonomia-parametro onenetara egokitzeko helburuarekin.

1.- ERREMOLATXAREN EZAUGARRIAK

Bi urtez behingo landarea da. Lehenengo urtean erreserbak metatzen dituen sustraia sortzen da eta bigarrenean, berriz, loreak eta haziak hazten dira.

Fruitua glomerulu bat da. Horrenbestez, hainbat hazi (oro har bi eta lau artean) biltzen ditu. Bada, laborantzian zehar bakantzeko lanak egin beharko dira.

Lorea hermafrodita da, baina berorren ernalkuntza batez ere gurutzatua da, izan ere, lorearen organo arrak eta emeak ez dira garai berean heltzen. Hori dela eta, oso zaila da erremolatzaren adar purua lortzea.

2.- KLIMA

Hezetasun-ezarekiko sentsibilitate handia du. Horrenbestez, ezinbestekoa izango da ureztatzea. Masa berde asko du eta ur asko behar izaten du, bai masa hori garatzeko, bai izerdiketa egiteko.



Kilogramo bat materia lehor lortzeko 200–300 litro ur behar dira. Hazkuntza–zikloan behar duen gutxieneko ur–kantitatea 600–800 mm–koa da.

Argitasunak tenperaturak baino garrantzi handiagoa du, izan ere, hazkuntzan zehar argi ona izateak azukrea osatzea baldintzatzen duen funtzio klorofilikoaren garapena ona izatea ahalbidetzen du.

3.- LURZORUA PRESTATZEA

Udazkenean lan sakona egin beharko da. Uztondoa sartuz gero, lan hori ahalik eta gehien atzeratuko da lastoa deskonposa dadin. Alabaina, zeregin hori beti egin behar da neguko izozte gogorrek hasi baino lehen. Izan ere, horiek lurra lantzerakoan sortzen diren zokorrak disgregatzen laguntzen dute.

Ereiteko hondorik egokienak 3 eta 4 cm arteko azaleko geruzak, erremolatxaren hazien tamainaren antzekoa izango duten zokortxo ugari izango dituenak, osatutakoa izan behar duela uste da. Azaleko geruzaren osaketa horrek zarakarra sortzea eragozten du, nahiz eta eurite arinak izan, eta plantula ernamuindua jaiotzea errazten du. Berorren azpian oso lur fina eduki behar du haziaren eta lurzorua-aren arteko kontaktua ziurtatzeko eta ernamuintzean sortutako hezetasuna berehala transmititzeko. Lur fineko bigarren geruza honen azpian eta 5 eta 7 cm arteko sakoneran, haziari eusteko horizonte bat, irmoa eta laua, eduki behar du, horrek erraztuko baitu lurzoruko urak kapilaritatearen bidez gora egitea eta eragotziko baitu hazia sakonegi hondoratzea.

Ereiteko hondoan maiz sortu ohi dira kalteak traktorearen gurpilak gainetik pasatzearen ondorioz. Azken prestaketa–lan hau ez da inoiz egin behar lurzorua hezea dagoenean, hori errazago trinkotzen baita.

Nekazaritzako lanek eragina izaten dute lurzorua-aren egiturari, batez ere bi arrazoi hauek direla eta: lurzorua makinak igarotzearen ondorioz zapaltzea eta lanak sasoi egokia denean ez egitea (lurzorua oso hezea dagoenean trinkotzea gertatzen da eta lurzorua oso lehorra dagoenean, berriz, disgregazioa gertatzen da). Traktoreek edo uzta biltzeko makina autonomoek erregaiak eta koipeak kontsumitzeak ere hondakinak sortzen ditu.

ONGARRIZATZEA

- **Nitrogenoa:** Nitrogenoaren eragin nagusia landarearen garapen begetatibo handiagoa da. Gisa horretan handitu egiten da uztaren kantitatea, baina, aldi berean, gutxitu egiten da azukrearen portzentajea, batez ere gehiegizko ekarpenen kasuan.

Honakoa da gomendatzen den ongarrizatzeko nitrogenatua:

- Materia organiko ugari duten lurzoruetan (>2%): 120 kg N/Ha.
- %2 baino materia organiko gutxiago duten lurzoruetan: 180 kg N/Ha.

- **Fosforoa:** ondorengo tauletan bildu ditugu ongarrri fosforikoaren inguruko gomendioak lurzorua-aren kantitatearen arabera:

Ongarrri fosforikoaren gomendioak		
P fosforoaren ppm	Maila	Proposatutako ongarrria (kg P ₂ O ₅ /ha)
<10	Baxua	150
10–15	Nahiko baxua	125
15–30	Ona	75
30–45	Altua	50
>45	Oso altua	0

- **Potasioa:** Elementu honek garrantzi handia du hostoetan azukrea sortzeko eta, zikloaren amaieran, azukre hori sustraietara garraiatzeko.

Erremolatxak batez ere hostoetan eta koroetan gelditzen diren elementu honen kantitate handiak ateratzen ditu. Hori dela eta, lurpean gelditzen badira, zatirik handiena lurzorura itzultzen da.

Ondorengo koadroan ongarri potasikoaren inguruko gomendio batzuk eskaintzen dira:

Ongarri potasikoaren gomendioak				
Potasioa honela adierazi da: meq* K*/100 gr edo K ₂ O ppm (azetatoa)				
Lurzoru-mota	K ₂ O ppm	meq* K 100 gr	Maila	Proposatutako ongarria (Kg K ₂ O/ha)
Lurzoru arinak	<32	<0,0	Oso baxua	400
	33-60	0,081-0,15	Baxua	300
	61-100	0,16-0,25	Ona	100
	101-200	0,26-0,5	Altua	-
	>200	>0,5	Oso altua	-
Erdi-mailako lurzorua	<40	<0,10	Oso baxua	400
	41-80	0,11-0,20	Baxua	300
	81-160	0,21-0,40	Ona	100
	161-240	0,41-0,60	Altua	-
	>240	>0,60	Oso altua	-
Lurzoru sendoak	<60	<0,15	Oso baxua	400
	61-100	0,61-0,25	Baxua	300
	101-200	0,26-0,50	Ona	100
	201-300	0,51-0,75	Altua	-
	>300	>0,75	Oso altua	-

* meq= miliekibalentea

Ongarriek oro har lurpean izaten ez diren egitura kimiko konplexuko substantziak eskaintzen dituzte. Horiek landareek erazten dituzte neurri batean eta gainerakoa lurzoruan gelditzen da horizonte sakonetan, edo euriaren edo ureztatzearen bidez lixibiatzen da. Horren eraginez ubideetara iristen dira eta gisa horretan sortzen dira eutrofizazio-arazoak, bertako oreka ekologikoaren aldaketa dakartenak.

4.- EREINTZA

Ereiaroa

Ahal dela eta aldeko egoeraz baliatzeko, ereintza goiztiarra lehenetsi behar da. Garrantzitsua da landareak lurzorua lehenbailehen estaltzea lerroen arteko laboreak murrizteko, belar gaiztoekiko lehia ekiditeko eta udaberrian erremolatxa ahalik eta gehien garatzea lortzeko.

Sakonera

Zelaietan landareak jaiotzeko zailtasun asko eta landareen akatsetako asko hazia sakonegi sartzearen ondorio izaten dira. Haziak oso azalean gelditu behar du (2-3 cm), lehertzeko joera duten lur hareatsuetan izan ezik (horietan 5-6 cm arte sartuko dugu).

Lurperatzea eta trinkotzea

Hazia ildoaren hondoan sartu ostean, prozesua osatu beharko dugu, hots, lurperatu eta trinkotu egin beharko dugu.

Lurperatzeko ildoaren alde banatan kokatutako estaltzeko hegal txiki edo hortz batzuk edo eskua-re arin baten antzeko lana egiten duten diametro handiko mailako kateak erabiliko ditugu. Lurzoru askeetan ildo bere kabuz itxi ohi da, baina lurzoru sendoetan edo hezetan handiagoa duten oso garrantzitsua izaten da lurperatzeko gailuarekin egindako lana.



Ereiteko lana bukatzeko, trinkotzeko gailu batzuk erabiliko ditugu. Horiekin egindako lana ere oso garrantzitsua da batez ere lurzorua askea denean, lurraren eta haziaren arteko batasuna errazten duelako eta horrek, ondoren, enamuintzea azkartzen duelako.

5.- LABOREA BABESTEA

Tratamenduen programa

Herbizida sinpleak edo nahasiak neurrizko dosietan eta hainbat egoera begetatibotan elkarren hurren aplikatzean datza:

- 1. tratamendua: erein edo azaleratu aurretik. Produktua floraren eta lurzoruaren motaren arabera aukeratuko da.
- 2. tratamendua: azaleratze oste goiztiarrean. Belar gaiztoek bi kotiledoi izan behar dituzte, erremolatxaren egoera edozein delarik ere. Erabiltzen den produktua Betanal (Fenmedifan) da.
- 3. tratamendua: aurrekoa egin eta 5–10 egunera. Produktu berdinarekin, baina floraren eta jaiotza berantiarrak izateko aukeraren arabera hautatuko dugun hondakinezko batekin indartutakoarekin, egingo dugu. Erremolatxak bi hosto izan behar ditu.

Halaber, intsektuak, onddoak eta erremolatxako parasitoak agertzearen arabera, kontrolerako beharrezkoak diren berariazko tratamenduak ezarriko dira.

Tratamendu horiek guztiek substantzia kimikoak eskaintzen dizkiete lurzoruari eta laboreei eta oreka ekologiko naturala suntsitzen dute. Gisa horretan, produktuekiko erresistentziak agertzea errazten dute, fauna eta flora aldatzen dituzte, eta lurzoruak poluitzen dituzte, baita ubideak eta bertako bizia ere, garbiketaren eta arrastearen bidez.

6.- UREZTATZEA

Erremolatxak 350 eta 500 mm ureztatze edo euri artean behar du udako aldian zehar (uztaila eta iraila bitartean).

Nekazariak ahalegina egin behar du beharrezko ur-bolumena egoki —ureztatze—maiztasun egokiarekin eta lursailaren azalera osoko banaketa onarekin— aplikatzeko, bere laboreen errendimendua ahalik eta onena izan dadin.

Ureztatze-saio bakoitzean aplikatu beharreko ur-bolumena

Zelaiaren ahalmenaren arabera ureztatu behar da, bestela esan, landareak erraz erabiliko duen eta lurzoruak eutsi ahal izango duen uraren gehienezko bolumenaren arabera. Kantitate hori txikiagoa izango da lurzoru arinetan sendoetan baino. Hori dela eta, lurzoru arinak (eusteko ahalmen txikiagoa dutenak) ureztatzeko eusteko ahalmen handiagoa dutenak (sakonak, buztintsuak, materia organiko asko izango dutenak eta abar) ureztatzeko baino ur-bolumen txikiagoa behar dugu, baina maizago ureztatu beharko ditugu.

Oro har ureztatze-saio bakoitzean 30 litro erabiliko dira m²-ko lehenengo kasuan eta 40 eta 50 artean bigarrengean.

Ureztatzeak lurzoruan izango duen eragina lurzoruaren motaren, uraren kantitateen, aplikatzeko sistemen, tantaren tamainaren eta abarren arabera izango da. Hori guztia behar bezala egiten ez denean lurzoruaren egitura hautsi egiten da eta lurzoruko materialik finenak eta laboreak babesteko erabiltzen diren ongarri eta substantzia kimikoak arrastatzen dira, eta horrek lehen ere adierazi ditugun eraginak izango ditu.

Era berean, oreka ekologikoa aldatzen duten izaki jakin batzuk garatzea errazten duten mikroingurugiroak sortzen dira.

7.- BILKETA


Bilketa ere hainbat eragiketa biltzen dituen lana da. Eragiketa horiek hurrenez hurren edo aldi berean egin litezke, makina bera aprobeztatuz: koroa kentzea/zuritzea, errotik ateratzea, garbitzea eta kargatzea.

Lana zuzena izan dadin zuritzeko makinaren ebaketak garbia izan behar du, erroari eragin gabe eta lurrez estali gabe. Hori dela eta, gero eta zabaldagoa dago koroa kentzeko lana bi etapatan egitea: hostoa kentzea (zuritzea), batetik, eta koroa kentzea orrazi-gidariarekin eta hortzarekin, bestetik.

Errotik ateratzeko hainbat sistema erabil daitezke. Ohikoenak honakoak dira: disko zehharra, golde muturra eta disko/gidaria.

FLUXU-DIAGRAMA

AZUKRE-ERREMOLATXAREN LABORANTZA





2. Lehenengo saioa amaitu ondoren, 2 edo 3 pertsonako taldeak osatuko dituzue eta taldeka honako fitxa bete beharko duzue: “Erremolatzaren laborantzaren eragina”. Hori betetzerakoan kontuan izan beharko dituzue honako gai hauek:

- Lurlantzearen eragina.
- Fitosanitarioen eragina.
- Ongarrien eragina.
- Ureztatzearen eragina.
- Makineria astunaren eragina.
- Intsektuen kontrolaren eraginak.
- Laborantzako teknikak eta biodibertsitatea.
- Hondakin organikoak eta horiek izan dezaketen erabilera.

Azkenik, bateratze-lana egingo duzue eta ondorioak aurkeztuko dituzue.

ONDORIOAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

FITXA: ERREMOLATXAREN LABORANTZAREN INGURUGIRO-ERAGINA

ERAGINA	ERAGINA ZEIN UNETAN GERTATZEN DEN	ERAGINAREN ARRAZOIAK	ERAGINAREN IRISMENA	ERAGINA EKIDITEKO EDO MURRIZTEKO ALTERNATIBAK	JARDUERA JASANGARRIA AHALBIDETUKO LUKETEN NEURRIAK



5. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Zer egingo dugu azpiproduktuekin?	Gela. Etxea	2 ordu

HELBURU OPERATIBOAK

- Nekazaritza–jardueran sortzen diren hondakinak eta bestelako jardueretatik eratorritakoak, nekazaritza–prozesuetako lehengai gisa baliagarri izan daitezkeenak, identifikatzea.
- Hondakinek izan ditzaketen erabilerak aztertzea, betiere horien abantailak eta kalteak balioetsiz.
- Hondakinen kudeaketa egokiaren garrantziaz ohartzea.

BALIABIDEAK

- ◆ Fitxa: “Hiru hondakinen azterketa”
- ◆ Fitxa: “Nekazaritza–jardueren hondakinak eta horiek berrerabiltzea”

METODOLOGIA

Helburua ikasleek nekazaritza–jardueretan sortzen diren hondakinak eta horiek ustiapen horretan, nekazaritza–jardueraren eremuko beste sektore batzuetan edo industriaren eremuan bertan izan ditzaketen erabilerak identifikatzea da. Erabilera horietako bakoitzaren alderdi onak eta txarrak ere balioetsi beharko dituzte. Halaber, beste jarduera batzuetatik eratorritako azpiproduktuak erabiltzeko aukera aztertuko dugu.

1. Horretarako bakarka nahiz binaka egingo dute lan. Ikasleek fitxa bana bete beharko dute eta bertan adieraziko dituzte, lehenik eta behin, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basozaintzako jardueretan sortzen diren azpiproduktuak eta, ondoren, beste jarduera batzuetatik eratorritakoak izan arren nekazaritza–jardueretan erabil daitezkeenak.
2. Horren ostean, hondakin horietako hiru landuko ditugu: zerealen lastoa, animalien simaurra eta araztegiko lohia. Horiek izan ditzaketen erabilerak aztertuko ditugu, baita horien alde onak eta txarrak ere.
3. Lanak bilduko ditugu eta, aztertu ondoren, azpiproduktuek sortzen duten ingurugiro–arazoari eta ahal den neurrian horiek berrerabiltzeari buruzko bateratze–lana egingo dugu. Bide horretatik, izaki bizidunen osagai diren elementuen birziklatze naturalerako sistema biziak (lurzorua–landareak–animaliak) zein garrantzitsuak diren azpimarratuko dugu.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Fitxak betetzea.
- Bateratze–lana.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ideiak ordenatuta eta zuzen aurkeztea.
- Garatutako edukiak.
- Lan–taldeko parte–hartzea.
- Bateratze–laneko parte–hartzea.

FITXA: "NEKAZARITZA-JARDUEREN HONDAKINAK ETA HORIEK BERRERABILTZEA"

NEKAZARITZA-JARDUERA

LABOREA	SORTZEN DITUEN HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK
Zerealak	Lastoa	Ongarria Aberetarako bazka eta azpia Energia-produkzioa Papera
Erremolatxa	Hostoak	Ongarria Aberetarako bazka
Patata	Hostoak Patata txikiak, hautsiak eta abar.	Ongarria Aberetarako bazka
Baratze-laboreak	Landare-hondarrak (hostoak, zurtoinak eta abar) Saldu ez diren landareak	Ongarria Aberetarako bazka
Fruta-laboreak/mahatsa	Inausketaren hondarrak	Konposta Egurra

ABELTZAINZTA-JARDUERA

SORTZEN DITUEN HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK
Simaorra	Lurzoruetarako ongarria eta medeatzea
Minda	Biogasaren produkzioa

BASOZAINZTA-JARDUERAK

SORTZEN DITUEN HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK
Inausketaren hondarrak	Erregaia
Adarrak	Konposta
Sastraka	

BESTE JARDUERA BATZUETATIK ERATORRITAKO HONDAKINAK

HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK
Araztegiko lohiak	Biogasaren produkzioa Nekazaritza-lurzoruetarako medeatzea
Hiri-hondakin organikoak	Biogasaren produkzioa Konposta
Abere-bazkarako egokiak diren industria-azpiproduktuak	Aberetarako bazka Konposta
Abere-bazkarako egokiak ez diren industria-hondakin organikoak	Konposta Industria-birziklatzea
Azukre-fabriken lurra	Lurzoruak hobetzeko ekarpena
Galdaketa-zepak	Nekazaritza-lurzoruetarako ongarria
Meatzaritzako hondakinak	Nekazaritza-lurzoruetarako ongarria

a

5. jarduera



<p>IZENBURUA</p> <p>Zer egingo dugu azpiproduktuekin?</p>	<p>KOKAPENA</p> <p>Gela. Etxea</p>	<p>KALKULATU DEN DENBORA</p> <p>2 ordu</p> 
--	---	---

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Nekazaritza–jardueran sortzen diren hondakinak eta bestelako jardueretatik eratorritakoak, nekazaritza–prozesuetako lehengai gisa baliagarri izan daitezkeenak, identifikatzea.
- ☞ Hondakinek izan ditzaketen erabilerak aztertzea, betiere horien abantailak eta kalteak balioetsiz.
- ☞ Hondakinen kudeaketa egokiaren garrantziaz ohartzea.

GARAPENA

1.- Nekazaritza–sektoreetako hondakinak.

Lehenik eta behin fitxa bana bete beharko duzue, bertan adierazteko nekazaritzako, abeltzaintzako eta basozaintzako jardueretan sortzen diren azpiproduktuak eta, bide batez, beste jarduerara batzuetatik eratorritakoak izan arren nekazaritza–jardueretan erabil daitezkeenak. Horrekin batera azpiproduktu horiek izan ditzaketen erabilerak adieraziko dituzue.

2.- Hiru hondakinen azterketa.

Horren ostean, hondakin horietako hiru landuko ditugu: zerealen lastoa, animalien simaurra eta araztegiko lohia. Horiek izan ditzaketen erabilerak aztertuko ditugu, baita horien alde onak eta txarrak ere. Erabilerarik onena edo onenak zein liratekeen balioetsiko dugu. Lan hau etxean bukatu beharko duzue adierazitako datarako.

Irakasleak lanak bilduko ditu eta, aztertu ondoren, azpiproduktuek sortzen duten ingurugiro–arazoari eta ahal den neurrian horiek berrerabiltzeari eta/edo birziklatzeari buruzko bateratze–lana egingo duzue.

1. **Jarduera honen helburua nekazaritza-sektoreetan sortzen diren hondakinak eta horiek ustiapen horretan, nekazaritza-jardueraren eremuko beste sektore batzuetan edo industriaren eremuan bertan izan ditzaketen erabilerak identifikatzea da. Erabilera horietako bakoitzaren alderdi onak eta txarrak ere balioetsi beharko dituzue. Halaber, aintzat hartuko duzue nekazaritza-jarduera ez direnetatik eratorritako azpiproduktuak erabiltzeko aukera.**

FITXA: "NEKAZARITZA-JARDUEREN HONDAKINAK ETA HORIEK BERRERABILTZEA"

LABOREA	SORTZEN DITUEN HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK

ABELTZAINZA-JARDUERA

SORTZEN DITUEN HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK

BASOZAINZA-JARDUERAK

SORTZEN DITUEN HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK


BESTE JARDUERA BATZUETATIK ERATORRITAKO HONDAKINAK

HONDAKINAK	IZAN DITZAKETEN BERRERABILPENAK

2. Hondakinak produkzio- eta kontsumo-jardueretan sortutako hondar-produktuak dira, horiek aprobetxatzea ahalbidetzen duen teknologiarik ez izatearen edo horiek erabili-ko dituen merkaturik ez izatearen ondorioz inolako ekonomia-baliorik ez dutenak.

Hondakin horiek erabiltzeko modua aurkitzen denean, jada ez dira hondar-produktu izango. Aitzitik, beste jarduera batzuen lehengai bihurtuko dira eta azpiproduktu izendatuko ditugu.

Ondoren azpiproduktu izan daitezkeen hiru hondakin aztertuko dituzue. Horiek erabiltzeak dituen abantailei eta eragozpenei buruzko hausnarketa egin beharko duzue.

FITXA: HIRU HONDAKINEN AZTERKETA
HONDAKINA: ZEREALEN LASTOA

ERABILERA	ABANTAILAK	ERAGOZPENAK
Aberetarako bazka eta azpia		
Bioerregaia		
Ongarria		

Ondorioak

HONDAKINA: ABELTZAINZAKO SIMAURRA

ERABILERAK	ABANTAILAK	ERAGOZPENAK
------------	------------	-------------

Biogasaren produkzioa

Lurzoruetarako ongarria
eta medeatzea

Ondorioak

HONDAKINA: ARAZTEGIKO LOHIAK

ERABILERAK	ABANTAILAK	ERAGOZPENAK
------------	------------	-------------

Biogasaren produkzioa

Nekazaritza-lurzoruetarako
medeatzea

Ondorioak



6. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Ingurugiro-politika	Gela	2 ordu

HELBURU OPERATIBOAK

- Ingurugiro-legeriaren —nazioartekoaren, estatukoaren nahiz autonomia-erkidegokoaren— iturriak aurkitzen jakitea.
- Nekazaritza- eta ingurugiro-politika nagusiak ezagutzea.

BALIABIDEAK

- ◆ Txostena: Nekazaritza-politika eta ingurugiro-legeria.
- ◆ Eranskina: EEEko 2078/92 Erregelamendua.
- ◆ 3/98 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra.
- ◆ Landa eta Ingurugiro Prestakuntza eta Sentsibilizatorako Karpeta, Bizkaiko Foru Aldundiarena.
- ◆ Eranskina: Ingurugiro-legeria.

METODOLOGIA

Jarduera hau garatzeko gelako bi saio egingo ditugu:

1. Ingurugiro-legeriari buruzko azalpen teorikoa.

Irakasleak ingurugiro-legeriari eta European, estatuan, erkidegoan eta udalerrian jarduten duten erakundeei buruzko informazioa eskainiko die ikasleei. Bereziki azpimarratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko legeria: 3/98 Legea, otsailaren 27koa, eta 2078/92 arauditik eratorritako nekazaritza- eta ingurugiro-arauak. Informazio horren laguntzaz ikasleek honako fitxa beteko dute: "Nekazaritza-sektoreko ingurugiro-legeria".

Ondoren, talde txikitan, azalpen teorikoari buruzko laburpen-lana egingo dute. Ikasleek honako fitxa bete beharko dute: "Nekazaritza-sektoreko ingurugiro-legeria".

2. Informe: "Nekazaritza-politika eta ingurugiro-legeria"

Gela 3 eta 5 pertsona arteko taldetan banatuko dugu "Nekazaritza-politika eta ingurugiro-legeria" izeneko txostena irakurtzeko eta aztertzeko. Ondoren, Europako Batasuneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta ingurugiro-politikei buruzko galdetegia beteko dute.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Fitxa: Ingurugiro-legeria.
- Galdetegia.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ideiak ordenatuta eta zuzen aurkeztea.
- Lan-taldeko parte-hartzea.

a

6. jarduera



<p>IZENBURUA</p> <hr/> <p>Ingurugiro-politika</p>	<p>KOKAPENA</p> <p>Gela</p>	<p>KALKULATU DEN DENBORA</p> <p>2 ordu</p>
Gaur egun nekazaritzaren sektorean orain urte gutxi batzuk erabiltzen ziren lanerako metodoetatik oso urrun daudenak planteatzen dira. Hori ingurugiroa babesteko arauen presioen eta kontsumitzaileen kontzientziazioaren eta eskakizunen ondorio da. Horren guztiaren helburua produktu osasungarriagoak lortzea da, baita laborantzarako azalaren errendimendu handiagoa lortzea ere, baina eragin negatiboak (pestizidak, ongarririkimikoak, poluzioa, lurzorua pobretzea, biodibertsitatea galtzea, paisaia suntsitzea...) gutxitzeko asmoa ahaztu gabe.

Adibidez, ongarririkimikoak, plagizidak eta hazkuntzaren erregulatuzaileak erabili beharrean, erritmo naturalak errespetatu daitezke eta laboreen txandakatzea, ongarriztatze organikoa eta izurrien aurkako borroka biologikoa erabili daitezke. Elikagaietan hondakin fitosanitarioak kontrolatzeko sistema bat ezartzea tresna eraginkorra izan liteke kontsumitzaileen eta produktoreen interesak babesteko.

2. Eztabaida

IKSei eta auditoretzei buruzko informazioa bilatu ondoren egin ezazue guztiok batera ondorengo alderdi hauei buruzko hausnarketa:

- ***Zein dira nekazaritza-sektoreak sortzen dituen ingurugiro-arazo nagusiak?***
- ***Zein alderdi landu behar lituzke ekoauditoretza batek?***
- ***Nolakoa litzateke nekazaritza-ustiapen batean ingurugiroa kudeatzeko sistema ezartzeko plana?***



8. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Nekazaritza–praktika egokien kodea prestatzea	Gela. Etxea	2 ordu

HELBURU OPERATIBOAK

- Nekazaritza praktika egokien kode bat aplikatzeko premia balioestea.
- Nekazaritza–praktika egokien kodea prestatzea.
- Proposatutako ekintza guztietan barne hartzea jasangarritasunaren ideia.

BALIABIDEAK

- ◆ Fitxa: “Ingurugiro–praktika egokiak”
- ◆ Eranskina: Landa- eta ingurugiro–jarduerak. Iturria: “Landa eta Ingurugiro Prestakuntza eta Sentsibilizaziorako Karpeta”, Bizkaiko Foru Aldundia, Nekazaritza Saila.
- ◆ Eranskina: “Ingurumena errespetatuko duen nekazaritza baten alde lanean”

METODOLOGIA

Helburua ikasleek “nekazaritza–praktika egokien kodea” prestatzea da. Horretarako aurreko jardueretan izandako esperientzia eta egindako hausnarketa eta heziketa–zikloko lehenengo hilabeteetan landutako moduluetan garatutakoa izango dituzte oinarri.

1. Hori egiteko ikasleei “Ingurugiro–praktika egokiak” izeneko fitxa ematea proposatzen da. Hori jarduera honi dagokion lehen eskola–orduan beteko dute. Saioaren amaieran ikasleek betetako fitxa jasoko dugu ebaluaziorako.

Lan hori lehenbailehen itzuliko diegu egoki iritzi ditugun oharrak ikus ditzaten. Horrez gain, eranskinean barne hartutako landa- eta ingurugiro–jarduketan fitxak emango dizkiegu gida gisa erabil ditzaten. Material hori guztia erabiliz txostena etxean berregin beharko dute. Oraingoak aurrekoak baino osatuagoa izan beharko du.

2. Bigarren saioan bateratze–lana egin dezakegu prestatutako kodeak oinarritzat hartuta. Lan horretan irakaslea izango da gidari eta suposizio errealak planteatuko ditu. Bide batez planteamendu horiek abian jartzeko beharrezkoak diren mekanismoak azpimarratuko ditu eta beti izango du gogoan jasangarritasunaren kontzeptua.

Unitate didaktikoaren ondorio gisa ikastetxean garatuko diren eskola praktikoetan erabili ahal izango den eta beste lan–eremu batzuetarako baliagarri izan litekeen “nekazaritza–praktika egokien kodea” planteatuko da.

Honako eskema hau proposatzen dugu “nekazaritza–praktika egokien kodea” prestatzeko:

1. Baliabideen erabilera

- Zerrenda.
- Jatorria.

- Erabilera.
- Inbentarioen kontrola.

2. Poluzioa

- Agente poluitzaileak.
- Poluzioa murriztea.

3. Ingurunea zaintzea

- Natur ingurunea zaintzea.
- Nekazaritza-sistema zaintzea eta hobetzea.

EBALUAZIOA

JARDUERA

- Nekazaritza-praktika egokien kodea prestatzea.
- Bateratze-lana.


EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Emandako eskemara egokitzea.
- Garatutako edukiak.
- Ingurugiro-arazoekiko interesa.

a

8. jarduera



<p>IZENBURUA Nekazaritza–praktika egokien kodea prestatzea</p>	<p>KOKAPENA Gela. Etxea</p>	<p>KALKULATU DEN DENBORA 2 ordu</p> 
---	--	--

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Nekazaritza–praktika egokien kode bat aplikatzeko premia balioestea.
- ☞ Nekazaritza–praktika egokien kodea prestatzea.
- ☞ Proposatutako ekintza guztietan barne hartzea jasangarritasunaren ideia.

GARAPENA

Jarduera honetan “nekazaritza–praktika egokien kodea” prestatuko duzue. Horretarako unitate didaktiko honetan eta heziketa–zikloko lehenengo hilabeteetan landu dituzuen Heziketa Zikloaren moduluetan garatutako eduki guztiak erabiliko dituzue.

1. Lehenengo saioan “Ingurugiro–praktika egokiak” izeneko fitxa bete beharko duzue. Ikus dezakezue, fitxa horrek hiru zati ditu: baliabideen erabilera, poluzioa eta ingurugiroa zaintzea. Saioaren amaieran egindako txostena entregatu beharko duzue. Irakasleak txosten hori ebaluatuko du eta informazio gehiagorekin itzuliko dizue, etxean aurrekoa baino txosten osatuagoa eta landuagoa egin ahal izateko.
2. Bigarren saioan egindako txostenen bateratze–lana egingo duzue. Bide horretatik nekazaritza–praktika egokien kodea proposatuko duzue guztion artean. Hori ondoren oinarri gisa erabili ahal izango duzue eskolako praktketan nahiz beste lan–eremu batzuetan.

1. Ondorengo fitxan ingurugiro-praktika egokiak landuko dituzue. Hasteko baliabideen erabilerari buruzko hausnarketa egingo duzue. Gure jardueran erabiltzen diren baliabideak zerrendatu beharko dituzue, baliabide bakoitzaren jatorria adierazi beharko duzue, baita horiek izaten duten erabilerarik ohikoena ere. Bide horretatik garapen jasagarriak bete beharko lituzkeen helburuak eta helburu horiek lortzeko baliagarri izan litezkeen praktikak proposatzera iritsiko zarete.

Poluzioari dagokionez, agente poluitzaile nagusiak zerrendatuko dituzue eta horiek murrizteko neurriak proposatuko dituzue.

Azkenik, nekazaritza-ingurunea nahiz natur ingurunea zaintzeko helburuak proposatu beharko dituzue, baita horiek lortzeko praktika egokiak ere.

INGURUGIRO-PRAKTIKA EGOKIAK			
1.- BALIABIDEEN ERABILERA			
BALIABIDEAK	JATORRIA	OHIKO ERABILERA	LORTU BEHARREKO HELBURUAK LORTU NAHI DIREN PRAKTIKAK
Lurzorua			
Ura			
Energia			
Ongarriak			
Produktu fitosanitarioak			
Baliabide genetikoak			
Nekazaritza-sistemak			



2.- POLUZIOA

AGENTE POLUITZAILEAK

POLUZIOA MURRIZTEKO NEKAZARITZA-PRAKTIKAK

3.- INGURUNEA ZAINITZEA

LORTU BEHARREKO HELBURUAK

LORTU NAHI DIREN PRAKTIKAK

Natur ingurunea zainitzea

Nekazaritza-sistema zainitzea eta hobetzea



1. FITXA

HELBURU SISTEMAK		NEKAZARITZA ETA INGURUNeko JARDUKETAK	
1.- BALIABIDEEN ERABILERA	BERARIAZKO HELBURUAK	NEKAZARITZAKO JARDUNBIDEA	
1.1. LURRA nekazaritzako oinarritzako baliabide legez jagotea	1.1.1. Lurraren higadura eta hondaketa fisikoa aurrikusi eta zuzentzea	■	MANTENTZEKO LURLANTZEA LABORANTZA, BANDA EDO ZERRENDATAN GALONDO EDO SAKIMAK ERRETZEA ALDENTZEA
	1.1.2. Lurraren emankortasun baldintzak zaindu eta hobetze	■	UREZTAKETAREN KONTROLA HIGADURAREN AURKAKO BERARIAZKO JARDUNBIDEAK
	1.1.3. Lurreko ura mantentzea	■	LABOREEN TXANDAKETA LURREAN URA MANTENTZEKO JARDUNBIDEAK
	1.1.4. Lurraren kutsadura mugatzea	■	UREZTAKETA-UREN KALITATE KONTROLA Begiratu ONGARRIAK ETA IZURRI-HILKARIAK erabiltzearekin zerikusia duten jardunbideak
1.2. URA eraginkortasunez erabiltzea	1.2.1. Uraren erabilera gutxitzea	■	KOPURU TXIKIKO UREZTAKETA-SISTEMEN ERABILERA
	1.2.2. Ureztatzeko ura zentzunez erabiltzea	■	UREZTAKETAREN ERABILERA EGOKIA UREZTAKETA DOSIEN ERABILERA AHALIK ONDOEN EGITEA
	1.2.3. Uren kutsadura gutxitzea	■	Begiratu ONGARRI ETA IZURRI-HILKARIAK erabiltzearekin zerikusia duten jardunbideak
	1.2.4. Kontsumorako ordezeko beste bide batzuk erabiltzea	■	ARAZTUTAKO HONDAKIN-UREN BIDEZKO UREZTAKETA
1.3. ENERGIA ahalik eta ondoen erabiltzea	1.3.1. Energiaren erabilera gutxitzea	■	NEKAZARITZAKO TRAKTORETAN ERREGAIEN ERABILERA GUTXITZEKO JARDUNBIDEAK LURLANTZE, UZTABILTZE ETA ABARRETAN ERREGAIEN ERABILERA GUTXITZEKO JARDUNBIDEAK
	1.3.2. Berriztatzen diren energiak sortu eta erabiltzea	■	ERREGAIAK BILTEGIAN GORDE ETA ZENTZUNEZ ERABILTZEA BERRIZTAGARRIAK DIREN ENERGIAK ERABILTZEA ETA SORTZEA: Bioerregaiak, Biomasa, Metanoa, Eguzki edo Haize bidezko Energia
1.4. ONGARRIEN erabilera zentzunez egitea.	1.4.1. Gai fitosanitarioen erabilera gutxitzea	■	ONGARRIEN EZARKETA EGOKIA. ONGARRI NITROGENATUAK. NITRATOEN BIDEZKO LUR EDO UR KUTSADURAREN AURKAKO JARDUNBIDEAK EDO JARDUKETAK
	1.4.2. Kutsadurarik gutxien sortzen duten tradiziozko ongarriketara teknika erabiltzea	■	MEDEAGARRIAK NAHIZ TRADIZIOZKO ONGARRI ORGANIKOAK EMATEA. KONPOST ERAKO HONDAKIN ORGANIKOAK
	1.4.3. Ordezko gaiak eta ongarriketara-teknikak erabiltzea	■	ONGARRI BERDEA
1.5. GAI FITOSANITARIOAK zentzunez eta kontuz erabiltzea.	1.5.1. Gai fitosanitarioen erabilera gutxitzea	■	KONTROLA EDO BURRUKA INTEGRATUA
	1.5.2. Inguruan eragin txikia duten gaiak erabiltzea.	■	INGURU NEAN ERAGIN TXIKIA DUTEN GAI FITOSANITARIOEN ERABILERA
	1.5.3. Kutsadura gutxien sortzen duten tradiziozko ongarriketara teknika erabiltzea	■	GAI FITOSANITARIOAK EZARTZEAK INGURUNEAN SORTUTAKO ERAGINA GUTXITZEKO JARDUNBIDEAK GAI FITOSANITARIOAK ERAGINKORTASUNEZ EZARTZEKO JARDUNBIDEMETODOS
	1.5.4. Kontrol kimikoen ordezeko sistemak erabiltzea.	■	KONTROLERAKO LAN METODOAK, JORRAKETAK KONTROL BIOLOGIKOAK
1.6. Aniztasun biologikoa, eta nekazaritza eta abeltzaintzako BALIABIDE GENETIKOAK mantentzea.	1.6.1. Tradiziozko eraintzak eta barietateak mantentzea.	■	TRADIZIOZKO LABOREAK ETA BERTAKO BARIETATEAK JAGON ETA MANTENTZEA
	1.6.2. Errenta, lan edo jolaserako bertako animalia-arrazak mantendu eta erabiltzea.	■	BERTOKO ABERE-ARRAZAK ETA GALTZEKO ARRISKUAN DAGOZANAK MANTENTZEA
1.7. Ingurugiroa zaintzeari loturiko NEKAZARITZA SISTEMAK jartzea.	1.7.1. Ordezkoak eta mantengarriak diren nekazaritza sistemak jartzea.	■	AUKERABIDEZKO EDO ORDEZKO NEKAZARITZA-ERAK NEKAZARITZA EKOLOGIKOAK

Iturria: Manual de practicas Agroambientales. Colegio Oficial de Ingenieros Agrónomos Centro y Canarias.

8.

jardueraren 1. eranskina

NEKAZARITZA





2. FITXA

HELBURU SISTEMAK		NEKAZARITZA ETA INGURUNEKO JARDUKETAK
2.- KUTSADURA	BERARIAZKO HELBURUAK	NEKAZARITZAKO JARDUNBIDEA
2.1. ATMOSFERARA doazen igorpenak kentzea	2.1.1. Atmosferara doazen igorpenak edo emisioak mugatzea	HAINBAT JARDUNBIDE EZBERDIN (GARAIKO LABORANTZA, NEKAZARITZAKO GALARDO ETA HONDAKINEN ERREKETAK ALDENTZEA, UZTAREN ERABILERA, ONGARRI ETA GAI FITOSANITARIOEN ERABILERA...)
2.2. HONDAKIN SOLIDUEN produkzioa gutxitzea	2.2.1. Hondakin solidoak berriro erabili eta egokiro kudeatzea	HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA. HONDAKIN ORGANIKOAK BERRIRO ERABILTZEA HONDAKIN SOLIDOEN TRATAMENDUA NEKAZARITZAKO INGURUNEAN
2.3. ISURKAI LIKIDOAK ahalik eta gehien gutxitzea	2.3.1. Isurketa toxikoak aldentzea	HONDAKIN UREN ARAZKETA IRAZKI BERDEEN SISTEMA BIDEZ EGITEA ABERE-HONDAKINEN ETA ONGARRI ORGANIKOEN ERABILERA
	2.3.2. Nekazaritzako kutsadura sakabanatua gutxitzea.	Begiratu ONGARRI ETA GAI FITOSANITARIOEKIN zerikusia duten eginbideak
3.- INGURUGUNEA MANTENTZEA	BERARIAZKO HELBURUAK	NEKAZARITZAKO JARDUNBIDEA
3.1. NEKAZARITZAKO INGURUAK mantendu eta hobetzea	3.1.1. Nekazaritzako tradiziozko inguruak mantentzea	NEKAZARITZA-BASOZAINZTA-ABELTZAINZTA SISTEMAK MANTENTZEA ZUHAITZ ORRI-ZABALAK LANDATZEA TRADIZIOZKO ETXE ETA ERAIKINAK MANTENTZEA
	3.1.2. Alde batera utzitako inguruak lehengoratzeta eta suteak aldentzea	SUTE ARRISKU HANDIKO ALDEETAN LURRAK EZER GABE MANTENTZEA ABELTZAINZTAKO SISTEMA ESTENTSIBOAK: ABELTZAINZTA SUTEEN AURKAKO BIDE MODURA
	3.1.3. Nekazaritzako inguruak hobetzea	BIDE. URTEGI, AREKA ETA HALAKOEN HEGALETAN HESIAK ETA ZUHAITZ LERROAK LANDATZEA. INGURUNEAREKIN BAT EZ DATOZEN ERAIKIN ETA INSTALAZIO INGURUAK EZKUTATZEKO LANDAKETAK
	3.1.4. Inguruko aparteko elementuak mantentzea	ZUHAITZ BEREZI, HAITZ, HORMA ETA ABAR MANTENTZEA...
3.2. EKOSISTEMAK mantendu eta hobetzea	3.2.1. Jatorriko landareak mantentzea nahiz berriro ezartzea	LABOREEN ARTEAN JATORRIKO LANDAREAK MANTENTZEA: HESIAK ETA ZUHAITZ SAKABANATUAK ERREKA ETA IBAR HEGALETAN LABORANTZARIK GABEKO TARTEAK MANTENTZEA LABORANTZA-LURRAK BASO BIHURTZEA
	3.2.2. Bizilekuak babestu eta halakoen aniztasuna bultzatzea	EHIZA-ESPEZIEENTZAT MESEDEGARRIAK DIREN LABOREAK MANTENTZEA
	3.2.3. Fauna kaltetzen ez duten nekazaritza jardunbideak egitea	Begiratu IZURRI-HILKARIAK edo PESTIZIDAK zentzuz erabiltzeari buruzko jardunbideak LABORE ESTENTSIBOEN SISTEMETAN FAUNA BABESTEA
	3.2.4. Ibaletako ekosistemak mantentzen laguntzea	ISURTEGI ETA IBARRETAN BEREZ SORTUTAKO LANDAREAK MANTENTZEA
	3.2.5. Hezeguneak errespetatu eta mantentzea	HEZEGUNEAK MANTENTZEKO NEKAZARITZA JARDUNBIDE EGOKIAK HEZEGUNE ONDOKO ALDEETAN LABORANTZA JARDUERAK UZTEA
3.3. BILAKABIDE EKOLOGIKOAK mantentzea	3.3.1. Hidrologiari dagozkion arauak bideratzen lagundu, eta higaduraren kontrola egitea.	BASO BIRLANDAKETAK BERTAKO ESPEZIEAK ERABILIZ EGITEA
	3.3.2. Laboreen artean baso-tarte sarea mantentzea edota sortzea	Begiratu INGURUALDEA ETA BERTAKO LANDAREAK MANTENTZEARI edota BERREZARTZEARI buruzko jardunbideak
	3.3.3. Ur-biltokiak errespetatu eta berezko drenaketa etenak aldentzea	IBAR, ERREKA ETA ABARREN INGURUETAN BABESERAKO HEGALAK EDO ALDEAK MANTENTZEA.

Iturria: Manual de practicas Agroambientales. Colegio Oficial de Ingenieros Agrónomos Centro y Canarias.



8. jardueraren 2. eranskina



NEKAZARITZA

Ingurumena errespetatuko duen nekazaritza baten alde lanean

Julen Rekondo

Ingurune

LEGEAK GARAI BERRIETARA EGOKITU BEHAR DU

1997ko "Ontzien eta ontzien Hondakinen Legeak" eta 1998ko "Hondakinen Legeak" hondakinen tratamendu egokiago bat lortzeko helburuak zehazten dituzte, hondakinak murriztu, berreskuratu eta berriro aprobetxatzen direlarik. Ez dira uneko apeta hutsa edo modernismo barregarria, baizik eta natur baliabideak hobeto aprobetxatzeko eta ingurumenean eragiten diren inpaktuak murrizteko modu bikaina dira. Azken finean, helburu nagusia da natura eta ingurumena babestea, eta aldi berean, gure bizi-kalitatea hobetzea.

"Lege honen xedea da hondakinak sortzea prebenitzea, eta bestalde, hondakinen murrizketa sustatzea, berriro erabiltzea, birziklatzea eta bestelako balorazio-moduak martxan jaretzea, bai eta lur poluituak arautzea, hartara ingurumena eta gizakion osasuna babesteko" (10/98 Legearen, Hondakinei buruzkoa, 1. artikulua).

Birziklatzeak gauza bat bizi-ziklora itzultzea esan nahi du. Naturak betidanik egin duen zerbait da. Hondakinekin gauza bera egitean lehengaiak berreskuratzen dira eta gainera, natur baliabideen gehiegizko erabilera saihestea lortzen da.

"Debekatuta dago lurralde nazional osoan hondakinak uztea, isurtzea edo kontrolik gabe desagerraraztea, bai eta hondakinen kudeaketa oztopatuko duen hondakinen nahasketa edo diluzio ere." (10/98 Legearen, Hondakinei buruzkoa, 12.2. artikulua).

Pestiziden ontziak botatzea oso arriskutsua da gizakion osasunarentzat, ganaduarentzat eta fauna basatiarentzat. Pestizidei okerreko erabilera emateak berez dituen ondorio larriez gain, pestiziden ontziak berak arriskutsuak izan daitezke giza osasunarentzat, ganaduarentzat eta fauna basati osoarentzat, ibai ertzean, mendian edo errekatxoetan uzten badira. Pestiziden ontzi guztiei poluzioa kendu behar zaio eliminatu baino lehen.

Ontziei poluzioa kentzeko honako urrats hauek eman behar dira:

- Ontziaren edukia tanga nahasgailu eta drainatzean hustu 30 segundoz.
- Ontzia uretan pasa, gutxienez ontziaren edukiaren %10 ur-bolumenarekin; gutxienez hiru aldiz errepikatuko da.
- Ontzia uretan pasa eta geratzen den likidoa tanke nahasgailura bota.

Ontzia eliminatzeko orduan jarraituko den metodoa ontzi-motaren arabera aplikatuko da. Ontzi erregaiek aire zabalean erraustu daitezke, kasu batean izan ezik: berariaz aipatzen bada ontziak ezin direla erraustu, hala nola herbiziden kasuan. Zenbait herbizida, lurruntzean, gizakiarentzat arriskutsuak eta toxikoak diren lurrinak sortzen dira. Edonola izanda ere, ahal den guztietan, eliminazio egokiena mota honetako hondakin toxikoak onartzen dituzten hondakindegietan burutzen dena da.

Erregaiak ez diren ontzien kasuan, berriz, estalkiak edo tapoiak kendu behar dira, eta ondoren, horiek zulatu egin behar dira berriro erabil ez daitezen. Jarraian, behin zanpatu ondoren lurperatu egin behar dira, edo mota horretako hondakinak onartzen dituen hondakindegi batera eraman.

SUTZARRAK ERRE EGITEN DU: KONTUZ IBILI

Nekazaritzako makina bat lanetan erabiltzen da sua: sastrakak garbitzeko, galondoak erretzeko, baratzeke edo mahastietako hondarrak desagerrarazteko, eta abar. Urtero izaten dira inolako kontrolik gabeko sutzarrak eta sutzar horiek sarritan sute oso larriak eragiten dituzte eta nekazaritzan eta naturan oso ondorio larriak izaten dituzte.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, nekazaritzako zereginetan, edozein motakoak izanda, sua erabiltzeko orduan arau jakin batzuk kontuan hartu behar dira. Horrela, sute bat piztu eta sutea hedatzea saihesteko hainbat baldintza bete behar dira Basoko Suteen Araudiaren arabera.

Neurri jakin batzuk gogoan hartzea ezinbestekoa da, eta horrela lortuko dugu sutzarraren eraginkortasuna areagotzea eta eragin daitezkeen kalteak murriztea.

Gomendioak:

- Baso Zerbitzuei baimena eskatzea.
- Sastrakak erretzeko haizerik gabeko egunak aukeratzea.
- Sutea egingo den zonaren inguruan bi metroko suebaki bat garbitzea, inguruan zuhaitzik ez badago; baina inguruan zuhaitzik badago, bost metrokoa izango da.
- Azalera zabalegiak erretzea saihestea.
- Erkidegoko Zerbitzuei sutea itzaltzeko bitartekoei dagokienez laguntza eskatzea Udalaren bitartez.
- Erreketa egunsentia etorri ondoren hastea, eta eguna amaitu baino bi ordu lehenago amaitzea.
- Lursailaren azalera kontuan hartuta, erreketak kontrolatzeko jende nahikoa egotea, eta txingarrak erabat itzalita egon arte kontrolatzea.
- Ez erre: plastikoak, gurpilak edo gomak, izan re, pertsonentzako eta izaki bizidun guztientzako oso arriskutsua den ke beltza sortzen baitute.
- Material lehorrak bakarrik erretzea, eta landare-hondar berdeak erretzea saihestea. Horrela lortuko da kea eta keak eragiten dituen ondorioak minimizatzea.
- Sutzar txiki bat egin eta gainontzeko materiala pixkanaka-pixkanaka bota sutara. Ez egin sutzar garairik, segurtasun-arazoak eta sua hedatzeko arriskua eragiten baitute.
- Erretzen ez diren materialak bereiztea eta sutara ez botatzea.
- Sutzarraren oinarria astintzea, hartara oxigenoaz hornituz erreketak hobetzeko.
- Ez piztu sutzarrik errepideen ondoan: su-garrak eta keak oso arriskutsuak dira.
- Haize handia badago, lehorte-garaia bada edo gaua bada ez piztu sutzarrik.

MINDA-PUTZUEN ERABILERA: LURRA ABERASTEA URA POLUITU GABE

Abeltzaintzak aberastasun izugarria ekartzen du, eta gainera, abeltzaintzaren zaborra lurrentzako ongarri baliagarri bat da. 300 zerrik sortzen duten zabor-kantitatea 6000 lagunek osatutako herri batean sortzen denaren pareko da. Hala ere, minda-putzuak behar den bezala kudeatzen ez badira, esate baterako, behar bezala biltegitratzen ez badira, edo ongarri bezala erabiltzen badira, lurra, ura eta atmosfera poluitzea gerta daiteke.

Zona jakin bakoitzean aplika daitezkeen minda-putzuen kantitatea kontrolatu egin behar da. Lurra eta landareek hobeto aprobetxatuko dute minda-putzua behar bezala aplikatzen bada.

Gomendioak:

- Biltegitratze-sistema egokitzea. Minda-putzuak ez dira erreken inguruan biltegitratu behar. Aldiro-aldiro putzuak aztertu ihesak prebenitzeko.
- Erabili baino lehen ondo nahastu, produktu egonkortu eta homogeneoa lortzeko.
- Minda-putzuak ahalik eta gehien sakabanatu, hurbilen ditugun lursailetan gehiegi jarri eta urrun daudenetan gutxi jartzea saihesteko delarik.
- Klimatologia egokia kontuan hartzea, eta euriteak, izozteak eta elurteak izaten diren garaietan minda-putzurik ez aplikatu.

@ 8. jardueraren 2. eranskina



- Ezin dira minda-putzuak aplikatu gutxienez ur-baliabideetatik 10 metrora.
- Ez aplikatu minda gehiegi lursail batean, izan ere lurra eta araztegi bat eta ondorioz, minda erreka eta lurrazpiko uretara iristen da.

NEKAZARITZAKO ETA ABELAZKUNTZAKO JARDUEREN HONDAKINAK

ESNEA ETA ESNEKIAK

Esnetarako behi-azienden zenbait esplotazioetan hondakin bezala sortutako esne-kantitatea (deskonposatua, poluitua, mamitisa kutsatua, eta abar) egunean 20 litrokoa izatera irits daiteke, eta horri oritza gehitu beha zaio, garai jakin batzuetan.

Ezin da zuzenean ibilguetara isuri. Beste aukera batzuk aztertu behar dira: elikagai bezala erabiltzea, mindarekin nahastea, lurrean murriztuta aplikatzea, eta abar.

ANIMALIEN HILOTZAK

Betidanik bota izan dira animalien hilotzak putzu edo amildegietara eta karearekin edo gorotzarekin estali; baina azken praktika hori ez da gomendatzen gaixotasun baten ondorioz hil diren animalien kasuan, patogenoak transmititzeko arrisku handia baitago.

Gaur egun, Gipuzkoan animalia hilen bilketa egiten da, ondoren behar den tratamendua emateko; ekimen hori Mendi Elkartek sustatzen dute.

PUTZU SEPTIKOETAKO LOHIAK

Nekazaritza eta abelazkuntzako esplotazioetako ur beltzak ibilgu publikoetara isuri baino lehen tratatu behar dira, industria-poluziorik gabeko beste edozein hondakin-urekin egiten den bezalaxe. Karga poluitzailea batez ere organikoa da, nitrogenoa eta fosforoaren kantitate handiak dituztenak, beraz, hasiera batean, lurrarentzat ongarri bezala erabil daiteke.

Poluzio mikrobiologikoa ere gogoan hartu behar dugu, izan ere germen patogenoen ondorioz osasun-arrisku baten aurrean gaude.

Putzu septikoen kasuan, tratamendu-sistema arruntenak biologikoak izan ohi dira. Sistema honi jarraituta germen patogenoak eliminatzeko orduan izandako etekinak oso altuak dira, hortaz, asko eta asko lokatzean pilatzen da. Lokatz horiek nekazaritzako lurretan aplikatzean ahalik eta kontu handiena eduki behar da.

Eta ezin dugu ahaztu, Europako Batasuneko 86/278 zuzentaraua, nekazaritzan araztegi lokatzak erabiltzeko orduan ingurumenaren babesari, eta bereziki, lurren babesari buruzkoa, errespetatu egin behar dela.

GAIXOTASUNAK PREBENITZEKO URIK EZ POLUITU

Ardien hazterien aurkako tratamendua dela eta sortutako hondakin likidoen kontrolik gabeko isurketen ondorioz ur edangarriaren iturriak poluitzea gerta daiteke, edo uretako bizitza larriki poluitu edo kaltetu eta ganaduaren osasunean eragina izan, aipatutako likidoak oharkabean edaten badira.

Ardien hazterien aurkako tratamendua garatzeko gutxieneko alderdi batzuk kontuan hartuta ingurumenean arazoak sortzea saihestuko dugu.

Gomendioak:

- Ardien hazterien aurkako tratamendua bainuontzietan egin behar da, finkoak zein mugikorrek, eta ur-fluxuetatik ahalik eta urrutien instalatuko dira.
- Pieza bakarreko eta hustubiderik gabeko bainuontziak egokiagoak dira, eta alboan artegi bat egotea ezinbestekoa da bainatu ondoren, hamar minutuz, ardiak bertan sartzeko. Egokiena da hormigoizko lurra eta bainuontzirako fluxua duen artegi bat erabiltzea.

- Likidoen edukiontziak ez dira behin baino gehiagotan erabili behar. Ondo garbitu eta baimendutako hondakindegietara eraman behar dira.
- Bainuetako likido toxikoak ezin dira erreketan isuri. Bilketa–zerbitzu ofizialik ezean, Europako Batasuneko zenbait herrialdetan oso disolbatuta zabaltea gomendatzen da (5,03 m³/ha baino gutxiago), lur egokietan, hau da, lurra 30 cm baino gehiago dituen leketan eta urez beteta ez daudenetan.

MAKINEN ERABILERA: HONDAKINAK MODU EGOKIAN UTZI

Oinarrizko arauak:

- Erabilitako olioak, olioaren iragazkiak, pilak edo bateriak baimendutako edukiontzietara edo hondakindegietara bota behar dira.
- Makinak garbitzeko erabili den urari tratamendu egokia eman behar zaio.
- Aldiro–aldiro garbiketa–sistemak aztertu behar dira ihesak saihesteko.

HOBE DA PLASTIKOAK JASOTZEA MENDIAN ERRE EDO UTZI BEHARREAN

Zuhainen siloratzean erabiltzen diren plastiko guztien amaierako xedeak —abeltzainen kasuan—, edo negutegien estalkietan erabiltzen direnen amaierako xedeak —baratzezaintzaren kasuan—, hainbat arazo eragin ditzake ingurumenean mendian edo aire zabalean erretzen badira edo bertan uzten badira. Plastikoak erretzean ke beltza sortzen da, eta ke beltz hori oso toxikoa da pertsonentzat eta izaki bizidunen ororentzat. Bestalde, mendian uzten badira, biodegradagarriak ez direnez betirako geratuko dira utzitako lekuan.

Erabilitako plastikoak jasotzen badira birziklatzeko aukera izango dugu, eta ondorioz, energia aurrezteko lortuko dugu.

Gomendioak:

- Erabilitako plastikoak ez utzi mendian.
- Plastikoak kontrolik gabe erretzea saihestea, horrela ingurumenean eragiten diren arriskuak saihesteko.
- Erabilitako plastikoak jasotzea. Zenbait Udaletan jada plastikoaren bilketa garatzen da; plastikoak txikitu ondoren plantetara bidaltzen dira bertan birziklatzeko edo energia berreskuratzeko.



6. BALIABIDE DIDAKTIKOEK GIDA

MATERIAL BIBLIOGRAFIKOA

- **EUROPAKO BATZORDEA, DG XI.** (1996). *Ingurugiroari buruzko erkidegoko legeria*. Brusela. Europako Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegoa.
- **MARIANO SEOÁNEZ CALVO.** (1998). *Medio Ambiente y Desarrollo: Manual de gestión de los baliabideak en función del medio ambiente*. Mundi Prensa.

Testu honetan nahiz aurrekoan argi eta zehatz landu dituzten ingurugiroaren arloko alderdi ugari. Edukia nahiko eskematikoa da eta oso antolatuta dago. Kasu gehienetan saihestu egin dute gehiegi sakontzea. Bi liburuek ingurugiro-gaiei dagokienean egileak duen esperientzia islatzen dute, baita ingeniartzaren eremutik planteatutako arazoei dagokienez duen fokatzea ere.
- **NICOLA HEWIT** (1998). *Guía Europea para la Planificación de las "Agendas 21 Locales"*. Bakeaz/Eusko Jaurlaritz.

Toki-mailan Agenda 21en irizpideak aplikatzeko gida praktikoa. Udalerriko ingurugiro-ekintzako plan sistematiko bat prestatzeko lan-metodologia proposatzen du. Informazioa eta adibide praktikoa eskaintzen ditu tokiko ingurugiro-arazoak hedatzeko, herritarren parte-hartzea barne hartuko duten prozedurak garatzeko eta toki-mailatik ingurugiroa kudeatzeko eraginkorrak izango diren tresnak aplikatzeko.
- **ICLEI (TOKIKO INGURUGIRO EKIMENETARAKO NAZIOARTEKO KONTSEILUA).** (1996). *Manual de Planificación para la agenda 21 Local. Una introducción a la planificación para el desarrollo sostenible*.
- **IHOBE.** (1997). *Catálogo de Reciclaje Industrial de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Bilbo. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

IHOBE, S.A. Ingurugiro Kudeaketako Sozietate Publikoak landutako katalogo honek CERen (Hondakinen Katalogo Europarraren) zenbakizko ordenaren arabera eta hondakinen ordena alfabetikoaren arabera bilaketa-txantiloak, birziklatzaileen fitxak, biltzaileen fitxak eta kudeatzaileen fitxak, hondakin-moten arabera, hartzen ditu barne.
- **IHOBE.** 1998ko *Ingurugiro egoera Euskal Autonomia Erkidegoan*. 1998. Bilbo. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

Liburu honek ingurugiro-egoera deskribatzen du. Bertan arazoak eta kausak adierazi dituzte, baita horiei emandako erantzunak eta gure ingurugiroa babesteko hartutako neurriak ere.

II. zatia: Ebaluazioa eta arazoak. Aire, ura, itsasertza, lurzorua, dibertsitatea, hondakinak, zarata, arrisku natural eta teknologikoak eta hiri-ingurugiroa aztertu dira.

III. zatia: Giza jarduerak. Energia, industria, lehen sektorea, garraioa eta turismoa landu dira.
- **CLEMENS, R.B.** (1997). *Guía Completa de las Normas ISO 14000*. Bartzelona. Gestión 2000 S.A.

Gai garrantzitsuen gisa honako alderdi hauek lantzen ditu: ISO 14000ren sorrera eta egitura, enpresa baten kudeaketa-sistamarako gida izango diren arauak eta ISO 9000 arauetako harremanak.
- **SEOÁNEZ, M.** (1995) *El gran Diccionario del medio ambiente y de la contaminación*. Madril. Mundi-Prensa.
- **BROWN, L. ETA BESTE HAINBAT.** *La situación del mundo*. (Urteko txostena). Bartzelona. Apóstrofe.

Gizarte jasangarri baterako aurrerabideari buruzko txostena, Worldwatch Institute izenekoarena.

Txosten hau urtero argitaratzen da eta bertan giza garapenarekin zerikusia duten ingurugiro-arazo nagusiei buruz egindako ikerketen emaitzak biltzen dira.

- **Lurra aldizkaria.** 97 posta-kutxatila. Bergara
Nekazaritza ekologikoko Biolur elkartearen aldizkaria, ingurugiroarekin eta nekazaritza-hondakinekin zerikusia duten gaiak lantzen dituena. Testuen egitura argia da eta hizkuntza, berriz, erraza.
- **Ingurugiro Prestakuntzako Karpeta:** Bizkaiko Foru Aldundia.
Karpeta honetan BFAk 2078/92/CEE Erregelamenduari jarraiki garatu duen nekazaritza- eta ingurugiro-politika ikusi ahal izango dugu. Bertan adierazten dira nekazaritza-sektorea sustatzeko programak, ingurugirorako mesedegarriak izango diren jarduerak bilduko dituztenak eta helburu orokor hori lortzeko garatu beharreko jarduketak biltzen dituzten fitxak.
Horrezaz gain euskal administrazioek nekazaritza-jarduerak ingurugiroan dituen eragin negatiboak arintzeko gomendio gisa prestatutako nekazaritza-praktika egokien kodea biltzen du.
- **Lurra dibulgazio-orriak.** Arabako Foru Aldundia.
Hilero argitaratzen diren orriak, laborantzarako orientazioak eta gomendio teknikoak eskaintzen dituztenak, horien garapena eta nekazaritza-praktika egokiak kontuan izanik.
- **La agricultura y la contaminación del agua por nitratos.**
Dibulgazio-orriak. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Gai teknikoei buruzko aldizkako orriak. Honetan izenburuan adierazitako gaiari buruzko ikerketa bat biltzen da, Arabako urtegiak, batez ere Zadorra ibaiaren arroa, erreferentziatzat hartuta. Bertan izandako eraginak eta horien ondorioak aztertu dira.
- **A.I.M.C.R.A. aldizkaria** ("ASOCIACIÓN PARA LA INVESTIGACIÓN Y MEJORA DEL CULTIVO DE LA REMOLACHA").
Labore horren inguruko ikerketaren eta saiakuntzaren azken aurrerapenak eskaintzen dituen aldizkari teknikoa.
- **AZUCARERA EBRO AGRÍCOLA S.A.-ren informazio-orriak (AEASA)**
Erremolatxaren laborantza ahalik eta baldintzarik onenetan egiten ahal izateko jarraibideak eta gomendioak eskaintzen dituen orri teknikoa.
- **Nekazaritza-zentsua. EUSTAT.** Eusko Jaurlaritza
Izenak berak adierazten duenez, sektore horrek gure erkidegoan duen egoeraren ikuspeirik zabalena eskaintzen du. 80ko hamarkadaz geroztik egindako argitaraldiak ditugu.

INTERNETEKO HELBIDEAK

- ⌘ **Europako ingurugiroaren agentzia.**
<http://www.eea.dk>
- ⌘ **Europako Batzordearen ingurugiroari buruzko dokumentuak.**
<http://europa.eu.int/comm/dg11/docum/index.htm>
- ⌘ <http://www.aimcra.com>
- ⌘ <http://www.aesa.com>
- ⌘ **e mail:** ocabergar@nekazariagipuzkoa.net



1. eranskina: IHOBE



INGURUMENAREN KUDEAKETA ERAKUNDEEN IKUSPEGITIK

Zer da IHOBE?

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailera atxikitako Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publiko bat da.

Zeregina: giza jardueraren garapen–esparru orotan ingurumenaren kudeaketa zuzena lortzea.


2001 baliabideak: 38 lagun, eta 2.700 milioiko aurrekontua.

Sailak: Ekoizpen Garbia, Ingurumen Azpiegiturak, Lur Poluituak.

IHOBE S.A. sozietate publikoaren zereginak, nagusiki honako esparru hauetara bideratzen dira:

- Euskal industria,
ingurumenaren kudeaketaren eta ekoizpen garbiaren bitartez ingurumenaren gaineko eragina murriztea.
- Euskal administrazioa,
lur poluituen kudeaketa erraztea, laguntza moduan ingurumen–azpiegiturak eraikitzea, 21 Toki Agenda sustatzea eta Ingurumen Sailari bere ingurumen–estrategiaren plangintza egiten laguntzea.
- Gizartea,
herritarrengan eragina duten ingurumen–mailako berariazko inpaktuak eta arazoak murriztea (HCH...).

Horretarako, lehenik eta behin industriaren poluzioa prebenitzeko, lur poluituak bereizteko eta ingurumenaren babesa ziurtatzeko eta hobetzeko, ingurumen–azpiegiturak ezarri behar dira, eta xede horrekin, ekimenen plangintza eta garapena gauzatzeko hainbat jarduera garatzen da; hori guztia hiru jarduera–arlotan antolatzen da.



Sozietate Publiko honen zereginak euskal industriaren lehiakortasuna sendotzera zuzentzen dira, eta horretarako, ingurumen–faktorea behar bezala ulertu eta bereganatu behar da; gainera, sozietate publiko honek enpresa–sektorea sustatu nahi du, hartara euskal industria–sareak kontzeptu, ekipo eta teknologia garbiei dagokienez dituen eskakizunei erantzuteko. Hortaz, IHOBE, S.A. sozietate publikoaren helburua da ingurumen–egoera hobezina lortzea, eta xede horrekin lan egingo duen giza taldeak diziplina anitzetan lan egiteko gaitasuna eduki behar du, eta modu horretan lortuko da Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen–arazoak konpontzea.

A.- Zer eskaintzen dio IHOBE sozietateak Euskal Enpresari?

- **INFORMAZIO PRIBILEGIATUA.** Ingurumen Adierazleen Bankua eta industria-mailako ingurumenari dagokionez esperientzia aurreratuak.
- **INGURUMENAREN KUDEAKETA MODU ERAGINKORREAN EZARTZEA ENPRESETAN.** Lanabes eta metodo optimizatuak.
- **ENPRESAN ERABAKIAK HARTZEKO IRIZPIDEAK.** Ingurumenari buruzko argitalpen eta programa teknikoak.
- **KALITATE ZIURTATUA.** Adituen nazioarteko sarearen laguntza.
- **AURRE-ARAUAK.** Kontsulta eta Orientazio Zerbitzua. (IHOBE-LINE).
- **ENPRESA BAKOITZAREN PREMIEN ARABERAKO INGURUMEN-IRTENBIDEAK.**

A1.- INGURUMENA KUDEATZEKO ZERBITZUA

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak sustatutako “1999–2001 Ingurumen Kudeaketa Sustatzeko Programaren” helburu nagusia da euskal enpresen ingurumen-inpaktua murriztea; 1999–2001 urteen bitartean 500 euskal enpresetan ingurugiroa kudeatzeko planak ezarriko dira.

IHOBE sozietateak orientabideak eskaintzen dizkie enpresei hondakinak murrizteko, eta xede horrekin Ekoizpen Garbiaren abantailak aurkezten ditu (poluzioaren prebentzioa, laneko baldintzen hobekuntza, ekonomia-etekinen areagotzea eta lehia-kortasun handiagoa).

TALDE ISO-14

IHOBE S.A. sozietateak dinamizatutako enpresa-talde bat da; helburu nagusia da ISO 14001 modu optimizatuan ezartzea, bai epeari dagokionez bai kostuari dagokionez, eta horretarako taldearen sinergia aprobetxatuko da.

EKOSCAN

Ingurumena hobetzeko lanerako plan bat da eta enpresaren lehentasunezko arloetan ezartzen da. Hondakinak, igorpenak edo isurketak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainetara (ETEak) zuzentzen da, eta emaitza bezala ingurumenaren hobekuntza azkar lortzea eta ISO 14001era pixkanaka-pixkanaka hurbiltzea lortu nahi da.

Plan honen oinarrian ekonomia- eta ingurumen-mailako diagnosi aurreratu bat dago, eta enpresaren berriazko hobekuntza lortzeko talde batek parte hartzea sustatzen da.

Aldi berean, enpresako beste zenbait arlotan ere aplikatu daiteke plan hau, kalitate-sisteman bertan, edo ISO 14001 arauaren ziurtagirirantz pixkanaka-pixkanaka hurbiltzea sustatu daiteke.

A2.- INGURUMEN-ORIENTAZIORAKO ETA -DOKUMENTAZIORAKO IHOBE-LINE ZERBITZUA

www.ihobe.es

IHOBE sozietatearen zerbitzuei buruzko informazioa, eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren programei buruzko informazioa web-orri honetan dago.

Helbide honetan “Industria-birziklapenaren katalogoa” eta “Ingurumen-legeriari buruzko esku-liburua” lor daitezke, baita ISO 14001 araua duten enpresen zerrenda bat eta IHOBE sozietateak dohain banatzen dituen argitalpen gehienak ere (pdf formatuan).



1. eranskina: IHOBE



IHOBE-LINE

Euskal enpresentzako ingurumen-informazioa emateko doako zerbitzua. Honako alderdi hauei buruzko informazioa lor daiteke:

- Enpresara zuzentzen den legeria.
- Dirulaguntzak.
- IKS (ISO 14001).
- Ekoizpen garbia (etekinak areagotu hondakinak murriztuz).
- Poluzioaren prebentzioa.
- Teknologia garbiak.
- Hondakinen kudeatzaileak.
- Hondakinen eta airera egiten diren igorpenen minimizazioa.
- Birziklapena.
- Ontziak eta enbalajeak.
- Zarrastelkerien murrizketa.
- Isurkinen tratamendua.

ZERBITZU TELEFONIKOA (900150864)

Euskal enpresen galderei berehalako erantzuna ematen die. Zerbitzu honen ordutegia 9:00etatik 13:00etara da.

INGURUMENARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentazio Zentroak ingurumenari buruzko bibliografia-baliabideak eskaintzen ditu.

A3- PRESTAKUNTZA-ZERBITZUA ETA ATE IREKIAK

IHOBE sozietateak ingurumen-prestakuntzari dagokionez egiten duen eskaintza, enpresako ingurumen-esparruko zuzendari eta arduradunengana zuzentzen da, prestakuntza-mailako hainbat eskaerei erantzuteko. Hori dela eta, euskal enpresaren eskaera asetzeko eta ingurumena hobetzeko ekindako bidean laguntzeko, ISO-14001 Tailerra, Ate Irekiak eta Prestakuntza garatu dira beste zenbait erakunderekin batera, hala nola SPRI eta EUSKALIT. "Ate irekien" bitartez Euskal Herrian buru diren enpresek egindako esperientzietatik ikastea lortu nahi da, enpresa horietako zuzendaritza-taldeekin iritziak trukatu direlarik.

A4- ENPRESARI LAGUNTZEKO ARGITALPENAK

4.1. INGURUMEN KUDEAKETARI BURUZKO ARGITALPENAK

"Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Birziklapenaren katalogoa"

Euskal industria, administrazio, elkarte, aholkularitza eta injinerutzetara zuzentzen den lanerako tresna bat da. Katalogoaren helburu nagusia da industriako hondakinak birziklatzeko bideak sustatzea, enpresei erabilgarri dauden baloralizazio-bideak ezagutzeko aukera emango zaielarik. Berreskurapen-bide bakoitzaren informazioarekin batera, baldintza tekniko eta ekonomikoak, berreskurapen-prozesuak eta beste hainbat alderdi ere aurkezten dira.

CDan eta web-orrian aurkituko duzu.

"Euskal Industriarako Ingurumen Legeriari buruzko Esku-liburu Praktikoa"

Esku-liburu honetan jarduera jakin batekin eta bere interpretazioarekin erlacionatutako legeria bereizteko hainbat jarraibide ematen dira. Enpresa-mailako betebeharrak zeintzuk diren zehazten dira, baita ingurumen-arlo bakoitzean dauden eskumeneko enpresak eta burutu beharreko kudeaketak ere.

Ingurumen-mailako legeria betetzea erraztu nahi da, eta erantzukizun zibil edo delitu ekologikoagatiko zigorrak aurreikusi eta saihestu nahi dira, eta bezeroen, hornitzaileen edo orokorrean gizartearen eskaerei erantzun nahi zaie.

4.2. EKOIZPEN GARBIAREN ARGITALPENAK

Honako gida tekniko hauek landu dira:

- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Estaldura Elektrolitikoak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Beroko galbanizazioa.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Moldeaketa-hondarrak burdinaren galdaketetan.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Altzairutegietako zepak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Arrain Kontserbak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Pinturak Karrozerietan aplikatzea.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Metalaren mekanizazioa.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Arte Grafikoen sektorea.

4.3. INDUSTRIA SENTSIBILIZAZIOAREN ARGITALPENAK

“IHOBE ISO 14001 esku-liburua: ezarpenerako urratsak”

Ingurumen Kudeaketako ISO 14001 Araua ezarri nahi duten enpresentzako esku-liburu praktikoa. Lan honi esker ezarpen-prozesua arindu egiten da, formatua oso erabilgarria delako eta enpresa batean ISO 14001 araua ezartzeko beharrezkoa den dokumentazio osoa eskaintzen duelako.

“Ekoizpen Garbia Euskal Herrian”

Hiru txosten dira eta bertan biltzen da 100 enpresek baino gehiagok, IHOBE sozietatearekin batera, lankidetzan neurriak martxan jartzeko jarraitutako prozesua. Ekoizpen Garbia lortzeko neurri zehatzak ezarri ondoren izandako emaitzak aurkezten dira, baita enpresa hauek lortu dituzten ingurumen- eta ekonomia-mailako hobekuntzak ere.

Industrien hedapenerako horma-irudiak eta materialak

Honako material hauek landu dira:

- Ekoizpen Garbiaren etekinak.
- Lurzoru poluituak.
- Nola garbitu hobeto piezak ura aurreztuz? Enpresarentzako aholku praktikokoak.
- Hondakinak murrizteko 200 gomendio.
- Hondakinak minimizatzea errentagarria da.

Bideoak

- Ekoizpen garbia. Gure enpresen etorkizuna.
- ISO 14001, zure enpresarentzako aukera.
- Lurzoru poluituen kudeaketa. Zure udalerrarentzako erronka.



1. eranskina: IHOBE



4.4. BESTE ZENBAIT ARGITALPEN

“2000 Industria Ekobarometroa: euskal enpresaren ingurumenarekiko jarrera eta konpromisoa”

Honako txosten honen oinarrian Euskal Herriko 532 industria-enpresetan egindako galdeketa dago; galdeketaren helburu nagusia da euskal enpresak ingurumenaren aurrean agertzen duen jarrera, aurkitzen dituen oztopoak, hartzen duen konpromisoa eta garatzen duen jarduera zehaztea.

B.- Zer eskaintzen du IHOBE sozietateak lurzoru poluituei dagokienez?

Helburu nagusia da lurren poluzioaren ondorioz sortutako arazoei irtenbide bat ematea, eta horretarako, kudeaketa-tresna desberdinak sortuko dira eta toki-administrazioei laguntza eskainiko zaie. Horrez gain, Lurzoru Poluituen Informazio Sistema eguneratuta edukitzea lortu nahi da eta lurra bezalako baliabide baten prebentzioa, ikerketa eta berreskurapena sustatu nahi dira.

LURZORU POLUITUEN INFORMAZIO-ZENTROA: GEOIKER

Euskal Herriko Lurzoru Poluituen Informazio Sistema, toki-agintaritzen eta lurren jabeen edo erosleen eskura.

C.- Ingurumen Sailburuordetzak zein ingurumen-azpiegitura sustatzen ditu IHOBE sozietatearen bitartez?

IHOBE sozietatearen helburu bat da ingurumenaren babesa eta hobekuntza ziurtatzeko azpiegiturak antolatzea.

HONDAKINEN TRATAMENDURAKO BIRZIKLAPEN-PLANTAK:

- Erabilitako olioak, agortutako taladrinak eta erabilitako disolbatzaileak birziklatzeko zentro aurreratua.
- HCH puruaren tratamendurako planta.
- Pilen tratamendurako eta birziklapenerako planta (Recypilas).

OLEAZ, ERABILITAKO OLIOEN ANALISIRAKO ZENTRO OFIZIALA

Bere lana da Euskal Autonomia Erkidegoan jatorria duten erabilitako olioek ibilbidea kontrolatzea. Laborategi honetan, urtean, erabilitako olioaren 10.000 Tm kontrolatzen dira.

I+G INGURUMEN LABORATEGIA

Teknologien planta pilotuak eta beharrezkoak diren ingurumen-azpiegiturak ezarri baino lehen bideragarritasun teknikoaren eta ekonomikoaren azterketa.

@ 2. eranskina: EKOINDUSTRIA



EKOINDUSTRIA EUSKAL HERRIAN

Giza jarduera orok, eta bereziki industria-jarduerak, ingurugiroaren gaineko eragina izan ohi dute, izan ere natur baliabideak erabili, eraldatu egiten dira, eta azkenean, natur baliabideen hondakinen kondarrak geratzen dira.

Ingurugiroaren esparruan produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa-multzoa, Ekoindustria izenez ezagutzen dugu.

Gainontzeko industriak, ingurugiro-zerbitzuen eskatzaileak dira, eta aipatu industrietan ingurugiroarekin duten erlazioa, euren industria-politikan ingurugiro-mailako faktoreak kontuan hartzen dituzten unetik hasten da.

Ekoindustria dugu, gainontzeko industria-sektoreetan zehar hedatzen den eta aplikatzen den industria-sektore bakarra, Enpresa-Ingurugiroa erlazioari dagokionez irtenbideak eskainiz.


EAEn industria-tradizio luzea dugu, mende honetan barna garatu dena. Ondorioz, bi fenomeno osagarri sortu dira:

- alde batetik, industriak izandako garapena ingurugiroaren narriadura eragin duen arrazoi nagusietako bat izan da,
- bestalde, EAEn enpresa-gaitasun izugarria dagoenez, ingurugiro-mailako arazoei erantzun zabal eman ahal izan zaie, Ekoindustriaren sektore zabal bat sortuz.

Une honetan (1998), EAeko Ekoindustriaren sektoreak 450 enpresa baino gehiago biltzen ditu, eta fakturazioa 200.000 milioi PTA ingurukoa da, alegia, EAeko BPGren ia %4,5.

Aipatu fakturazioaren %70, EAeko mugetatik kanpo egiten da, beraz, EAEn kokatuta egonda ere, merkatu nagusia Autonomia Erkidegoaren mugetatik kanpora dago.

Horrela, Euskal Ekoindustriaren merkatua, zalantzarik gabe, Espainiako Estatuko nagusienetakoa dugu, jarraian azaltzen den grafikoan baieztatu daitekeen bezala.




1. grafikoa. Euskal Ekoindustriak Estatuan duen agerpena.

(1998) Euskal Ekoindustriaren beste zenbait datu, honako hauek dira:

1. TAULA. Beste mekatu batzuekiko konparaketa

	EUROPAKO BATASUNA	ESPAINIAKO ESTATUA	E.A.E.
Fakturazioa	140 Miliar EURO	3.200 Milioi EURO	1.190 Milioi EURO
BPG gaineko %	%1,4	%0,7	%4,47
Euroak/Kapita	416,63	69,39	246,06
Zuzeneko enplegua	1.000.000	37.600	6.500

Ingurugiro-arloka, euskal Ekoindustriaren sektoreko enpresen antolamendua honako hau da.



2. grafikoa. Ingurugiro Arloka, Euskal Ekoindustriaren antolamendua.

Euskadiko Ingurugiro-enpresen Katalogoan izena emandako 456 enpresen artetik, %56k hondakinen-arloan jarduten du, eta %46k, berriz, uren arloan, gainontzeko ingurugiro-arloak gaituz.

Ingurugiro-sektoreko ekoizpen-egitura hau, Estatuan eskaintzen denarekin bat dator, baita Europan eskaintzen denarekin ere, izan ere, bai politika bai legeria aurreratuena esparru honetan daude.

Euskal Ekoindustriaren ondorioz azpimarragarriena dugu, esparru honetako enpresa-kopuruaren eta enpresen kalitatearen arabera, merkatuan ondo kokatuta dagoen sektore bat dela, eta nahikoa anitza, Ingurugiroarekiko errespetuarekin bateragarria den garapena lortzeko, oraindik ere izango diren erronkei aurre egiteko prestatuta dagoena.

Zentzu honetan, biztanleriaren kontzientziazioa eta praktikan jartzea, ingurugiro-legeriaren eta merkatuko arau berrien bitartez, kontsumitzaileen interesetan eta bizi-kalitateari dagokionez balore berrietan oinarrituta, bi alderdiak izango dira Euskal Ekoindustriaren garapenerako ardatz eragile, bai enpresa eskatzaileei dagokienez, bai administrazioari dagokienez ere.



EKOINDUSTRIA



ZER DA ACLIMA?

ACLIMA, Euskal Herriko Ingurugiroko Cluster Industrien Elkarketa, irabasi–asmorik gabeko enpresa–elkartea da eta bere helburu nagusia Euskal Ekoindustria eta horrekin zerikusia duten industriak sustatu eta hobetzea da, aldi berean ekonomiaren eta enpleguaren garapenaz gain gizarteko arlo guztietan ingurugiro–jarduerako eta ingurugiroa errespetatzeko filosofia bultzatzen delarik.

ACLIMA 1995ean eratu zen, enpresa–talde baten ekimenari esker, Eusko Jaurlaritzaren ekintza estrategikoak sustatuta. ACLIMA Eusko Jaurlaritzaren jarduteko esparru baten barruan kokatzen da, alegia, Lehiakortasun Plana, zeinek helburu bezala euskal industria aukera berrien merkatua izan daitekeen honen, Europako Merkatu Bakarra hain zuzen, buru jartzea duena.

Jada ia lau urteko ibilbidea egin du, eta lau urte horietan, euskal industriaren ingurugiro–erreferente bihurtu da, bere inguruan esparru honetako enpresarik garrantzitsuenak bilduz, eta Ekoindustriaren garapena sustatuz.

Erakundearen barruan HIRU bazkide–mota daude: Ohorezko Bazkideak, Zenbakizko Bazkideak eta Bazkide Lankideak.

Lehenengo multzoan, hots Ohorezko Bazkideen multzoan, honako hauek biltzen dira:

- Eusko Jaurlaritza. Lehiakortasun Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen Sailburuordetza.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- IHOBE Ingurugiro Kudeaketarako Elkarte Publikoa.
- SPRI. Industria Sustapenerako eta Birmoldaketarako Elkarte Publikoa.
- EHU. ITIGET Industri eta Telekomunikazioen Injineruen Goi Eskola Teknikoa.
- Deustuko Unibertsitatea.
- Nafarroako Unibertsitatea.
- EITE. Ikerketa Zentroen Euskal Erakundea.
- Euskal Merkataritza Ganbarak.

Zenbakizko Bazkideen artean honako hauek aurkituko ditugu:

ACB	CINSA EP	M+A+S
ACIDEKA	COINPASA	MOYVEN
ADIRONDACK	CONSORCIO DE AGUAS	NEURTEK
AFESA	DIDIER TÉCNICA	NOVOTEC
ALFUS	EKONOR	ONDOAN
ARUSA	ELMET	OÑEDER
ASER	IBERDROLA	PRICEWATERHOUSE
ASFALTOS CAMPEZO	ICG–20–25	REMETAL
AZTI–FUNDACIÓN	IDEMA	RONTEALDE
BORG SERVICE	IDOM	SADER
BYCAM	INDUM. RECYCLING	SENER
CADAGUA	INGELECTRIC TEAM	SICE
CEMENTOS LEMONA	INGURU	SMURFIT NERVIÓN
CEMENTOS REZOLA	INZERGEST	TRADEBE
CESPA GR	LIMIA & MARTIN	ZABALGARBI

Azkenik, Bazkide Lankideak honako hauek dira:

CIDETEC

GRAVER

SANZ & SAIZ


DPA

MIRANDAOLA

ACLIMAKo enpresek, berrogeita hamar guztira, Euskal Herriko Ekoindustriaren sektoreko %11 osatzen dute, lauehun eta berrogeita hamasei enpresa bilduz.


1998 urtean, guztira 1.093.051 Milioi PTako (6.569 Meuro) fakturazioa egin zen, Ingurugiroaren berariazko fakturazioa 68.691 Milioi PTA (412 Meuro) izan zelarik; kopuru horrek, 1996ko datuekiko %50eko gorakada adierazten du, eta Euskal Ekoindustria guztiaren fakturazioaren ia %35.

Gorakada honek bi arrazoi nagusi izan ditu: lehenengoa, ACLIMAKo enpresen ingurugiro-zerbitzuen gorakada esanguratsua. Bigarrena, bazkide-kopurua areagotu izana, %35 baino gehiago bi urtetan.



3. grafikoa. Euskal Ekoindustrian ACLIMAREN fakturazioaren portzentajea.

ACLIMAKo enpresek Ingurugiroan egindako fakturazioa, EAEko BPGren %1,4 da.



4. grafikoa. Lurralde-esparru bakoitzean, BPGren gaineko Ingurugiro-gastuaren portzentajea.




EKOINDUSTRIA




Datu horiek aztertuz gero ikus dezakegunez, ACLIMako enpresen Ingurugiroak EAEko BPGren gainean duen eragina, Europako Batasuneko Ingurugiroarenaren antzekoa da, eta Espainiako Estatukoarena baino dexente handiagoa.

Geografia-esparruka, ingurugiro-fakturazioak jarraian azaltzen den antolamendua du.



5. grafikoa. Geografia-esparruka, ACLIMako enpresen Ingurugiro-fakturazioa.

Ikus daitekeen bezala, fakturazio gehiena Euskadin egiten da, eta Estatuko gainontzeko herrialdeak daude jarraian kokatuta. Nazioarteko fakturazioa, guztizkoaren %23 izatera iristen da. Aipatu kopuruak, EAEko Ingurugiro Klusterrarekin bat datoz, izan ere ACLIMako fakturazioaren %60 Euskal Herritik kanpo sortzen da, Euskal Ekoindustriaren %70en parean.



6. grafikoa. ACLIMaren egitura, fakturazio-tarteen arabera.


ACLIMako enpresa bazkide gehienak, 10.000 milioi baino gehiagoko fakturazioa duten enpresa-multzoan sartzen dira. Edonola izanda ere, daturik interesgarriena, Erakundea osatzen duten enpresen artean, fakturazioaren arabera banaketa orekatua egiten dela da.

Langile-kopuruaren arabera, enpresak jarraian azaltzen den bezala xehatu daitezke:

2. TAULA. Enplegatuen arabera, enpresa-kopurua.

ENPLEGATU-KOPURUA	ENPRESA-KOPURUA
0<50	23
>=50<100	8
>=100<200	5
>=200<500	9
>500	5

Taulan baieztatu daitezkeenez, ACLIMako enpresa gehienek, %45 hain zuzen, 50 langile baino gutxiago dituzte. Hala ere, ACLIMA Elkartearen osatzen duten enpresak ez daude, oro har euskal Ekoindustriako enpresak bezain atomizatuak, izan ere, euskal Ekoindustriako enpresen %85, 50 langile baino gutxiago ditu.



7. grafikoa. EAEn eta ACLIMAn fakturazioa/enpresa


ACLIMako enpresen Ingurugiro-fakturazioak, euskal ekoindustriaren guztizkoaren %34 biltzen du; horrez gain, enpresa bakoitzagatik fakturazio-ratioa ere azpimarragarria da, alegia, ACLIMari dagokionez 1373 milioi izatera iristen da, eta EAeko enpresei dagokionez, berriz, 485 milioi.

ACLIMako enpresentzako lanean ari den lagun-kopurua 20.593 da; horietan 2200 zuzenean ari dira Ingurugiroaren esparruko gaietan lanean.

